

## Ines Medinaren ikasleen erakusketea Igorreko Kultur Etxean

13. orrialdea

## Eleizea erre zaneko 100 urte dira

Mendeurrenean, gertakizun ha gogora ekarteko, hilaren 19an ibilbide gidatua egongo da Eleizondoko gune monumentaletik; 25ean, Ander Manteolak *Sute baten historia bizia* izeneko berbaldia emongo dau eta 26rako, Kandelen gaua, gaueko ibilbide musikatua antolatu dabe, Gontzal Mendibil, Olatz eta Esti eta beste musikari batzuen laguntzeagaz. 12. orrialdea



## Arantzartek ekintzak antolatu ditu 45. urteurrena dala eta

13. orrialdea

TOKIKOM

# begitu

arratia ubide zeberio

# 326

2019ko urri bigarrenaren 16a  
hamabostekaria  
www.begitu.org

## Jardunaldietarako prest Arratian

Zemendiaren 1, 2 eta 3an, Durangon Euskal Herriko V. Jardunaldi Feministak izango dira. Bertan, feministak egoeraren analisia egin eta estrategia

bateratuak sortuko dabez. Arratiako momentu feministako kideak be egongo diran, sinergiak aprobetxauz eskualdeko momentua indartzeko. 8. orrialdea



AZAROAK 1, 2, 3  
EUSKAL HERRIKO V. JARDUNALDI  
FEMINISTAK  
DURANGO

## 20 urte Lemoako Gazte Asanbladeak

Harriketarrak Gazte Asanbladakoak musika daukie euren esentziaz eta estilo askotako musika entzun ahal izango da Lemoako Karabie Gaztearen 20. urteurrenean.

Kontzertuak, triki poteoa, jantzaldiak, Dja... Zeinke taldeak harriketarrak egindako kantua be entzun ahal izango da zuzenean. Zeinkek, The Riff Truckers-ek, Moonshine Wagonek eta beste talde askok joko dabe urteurrena ospatuteko.

Egindako ibilbidea laburtzen dauan ekitaldia be egongo da. Gaztekoak herriko eragile aktiboak dira eta Gaztetetik hainbat talde sortu dira, herria kolorez bete daben taldeak.

Autogestinoa eta gazteen antolakuntza aldarrikatzen dabe Harriketarrak eta antolatuteko beharizan hori transmitidu gura deutsee hurrengoai. 9. orrialdea



### IGORRE

## Araluce mobilizazioetan lanpostuen defentsan

Martitzenean, hilak 15, hasi ziran Araluceko beharginak ordu biko lan-ixteak egiten, aste osoan jarraituteko asmoz. Greba mugabakoa egitea be ez dabela guztiz bazterten dinoe Enpresa Komitekoak. Izan be, 2016an BATZek Araluce erosi eban eta oin, epe laburrean, Araluce erosteko prest dagoan beste inor topatzen ez badau, fabrika deuseztatuko dauala jakinarazo deutse beharginai. Aralucen 141 langile dagoz eta euren lanpostuak defendiduteko burrukan hasi dira. 6. orrialdea



### ARRATIA

## Metalgintzako grebak jarraipen sano handia izan eban Arratian

Urri lehenengoaren 30etik urri bigarrenaren 4ra arte, greban izan ziran Bizkaiko metalgintzako langileak, hitzarmen duin bat eskatzeko. Arratian grebak, jarraipen sano handia izan ebalu dinoe sindikatuak, %90 ingurukoa, LABen arabera. Pikete informatiboak egunero pasau ziran industrialguneetatik eta Bilboko manifestazio jentetsuan be izan ziran Arratiako metaleko langileak. Sindikatuak proposamen bateratua aurkeztu izan dabe eta mobilizazioetan bat egin dabe. 7. orrialdea



### ARRATIA

## Gorenaren sententzien aurkako mobilizazioak

Altsasuko gazteai eta 2017ko urri bigarrenaren 1ean Katalunian independentzia erreferenduma antolatu eben buruzagiei Auzitegi Gorenak emondako epaiak, injustiziatzat jo dabez herritarrak eta kalera urten dira protestan.

Altsasukoak aske geratzeko eskatuteko konzentrazioa egin zan Igorren hilaren 10ean eta 200 lagun inguru batu ziran.

Kataluniako auziari jagokonean, Gure Esku Dago plataformak deitu eban konzentrazio zaratatsua urri bigarrenaren 14an. Deialdiari erantzunez, Arratian be, Areatzan, Diman, Igorren eta Zeberion konzentrazioak egon ziran sententziaren kontrako protesta adierazoteko. 5. orrialdea



# Literatura txokoa

## EZRA POUND

Derrigorra. Poesia zale guztiok egon behar geunke harpideturik Susako Poesia Kaieretara, Beñat Sarasolak maisuki koordinetan dauan bildumara. Lantzean-lantzean argitara emoten dabez poeta handien lanak, ezkuko ahapaldiak, marginaduen abotsak, ertzekoen maisu lanak. Bada, handia eta ertzekoa, biak batera izan zan Ezra Pound (Haley, Idaho, 1885-Venezia, 1972). Luigi Anselmik itzulia, derrigor irakurri beharreko kaiera dala uste dot. Ate asko zabaldu eban Poundek, klasikoetatik edanez garai barri baterako poesia asmatu eban. Jo eben antiamerikartzat, faxismoaren korporatibismoa defendatzeagaitik. Ameriketako Estatu Batuak maite ebazalako

gorrotatu eban, oster, hango guberna. Zorotzat jo eben, nahasketarizat. Bere herrialdean ez ekien garbi zer egin beragaz: edo sari literario bat emon, edo gerra krimenengaitik espetxeratu.

Eta Italian hartu eban babes, idea duda-mudazkoen herrialde suzkoan. Halakoxe temperamentua eukan, eta sano modu intensoan bizi izan eban eztabaida politiko eta literario guztiak. Poesia poesiarren gainean egitearen maisua izan zan. Beti delikaua, beti orekaren paradigma, Japoniatik Greziara —eta are, Erromara edo Probenzara— doan arku poetiko miragarria berri-dati eban, berdetu eban betiko eiteak: "Aurpegi horiek jendetzaren artean agertzea/Petaloak adaxka beltz, heze batean".

Horregaitik liburu hau hartzea da sinpletasunari buruzko tesi bat hartzea lakoa. Perifrasirako be, Poundek bati dauka biderik labur eta eraginkorrena aukeratzeko gaitasun txundigarria: "Ezar nazazue edozein lanbidetan,/idazle lanbide malapartatu honetan salbu,/non eta burmuinak erabili behar baitira tai/gabean".

Tradizioaren hizkuntza da Pounden poesia, modernidadearen berbakera barria. Entziklopedia lakoxe sakona da bere jakintza, baina umearan —lehen poetaren— inozentziagaz idatzi dirala emoten dabe hainbat pieza minimalistak. Poesia honek dardara egiten dau Luigi Anselmiren itzulpen bikainean, eta dardara hori ez dakizu dan arbolako orri batena, edo espiluan islatutako arbolako orri batena.

Igor Estankona

## Ezra Pound

Itzultzailea: Luigi Anselmi

Munduko Poesia Kaierak, Susa, 2018

64 orrialde



## TELEFONO INTERESGARRIAK

### Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00  
SOS DEIAK 112

### Guardiako Farmaziak

09:00etatik 22:00etara

### Urri bigarrenaren 14tik 20ra

Goikoetxea. Dima. Ugarana 33  
Tel.: 94 673 70 54 eta 619 524 057

### 22:00etatik 09:00etara

Ruiz Golvano. Amorebieta-Etxano.

### Urri bigarrenaren 21etik 27ra

Rodriguez Martinez. Igorre. Agirre Lehendakaria 27  
Tel.: 94 673 61 09 eta 688 635 154

### 22:00etatik 09:00etara

Goiria Montoya. Amorebieta-Etxano.

### Urri bi. 28tik zementziaren 3ra

N. Arrieta Bereciartua. Lemoa. Atuxa Sailburua 1  
Tel.: 94 631 30 18 eta 688 732 863

### 22:00etatik 09:00etara

Melero. Amorebieta-Etxano.  
Zeberioako ez dau guardiarik egiten.

### Urte osoan

22:00etatik 09:00etara

Gometza Ana. Francisco Kortabarria 2. Basauri.

### Medikuak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 11

Areatza: 94 631 71 52

Bedia: 94 631 34 13

Dima: 94 680 19 74

Igorre: 94 600 74 63

Lemoa: 94 631 31 16

Ubide: 945 38 50 14

Zeanuri: 94 673 91 49

Zeberio: 94 648 20 79

### Udaletxeak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 05

Areatza: 94 673 90 10

Bedia: 94 631 42 00

Dima: 94 631 57 25

Igorre: 94 631 53 84

Lemoa: 94 631 30 05

Ubide: 945 45 03 22

Zeanuri: 94 673 91 46

Zeberio: 94 648 10 79

### Udalen Mankomunitatea

94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15

### Gorbeialde

94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01

Parketxea 94 673 92 79

Igorreko Kultur Etxea

94 673 62 51

Gorbeialde Irratia

94 631 52 90

Euskotren 902 543 210

Areatzako Notarioritza

94 673 92 26

### Bizkaibus 94 612 55 55

Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegunetan: Lehenengoa 05:00etan.

Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan.

Zapatuetan: Lehenengoa 05:00etan.

Orduro: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro.

Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.

Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik

22:30etara 30 minuturo, azkenengoa

22:15ean Galdakaoraino.

Jaiegunetan: 07:00etatik 22:00etara 30

minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean

Galdakaoraino.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango

Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era

30 minuturo.

Jaiegunetan 07:00etatik 22:30era 30

minuturo.

Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo

Ubidetik urteerak, lanegun eta zapatuetan:

06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordurik

behin.

Otxandiotik urtekerak: Lanegun eta

zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide

Lanegun, zapatu eta jaiegunetan,

Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik

behin.

Zeanuri-Lemoa-Bilbo

(Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik

21:15era orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Bilbo-Lemoa-Zeanuri

(Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Zeberio-Ugao

Lanegun eta zapatuetan:

Zeberiotik: 7:00, 08:20, 09:10\*, 11:00, 11:45\*,

14:10, 15:00, 16:10, 18:30\*, 20:20.

\* Basauriraino (Ariz) heltzean da.

Gainontzekoak Ugaoraino. Jaiegunetan ez

dago zerbitzurik.

Ugao-Zeberio

Lanegun eta zapatuetan:

Ugaotik: 8:40, 10:20, 11:20, 14:30, 16:30,

19:40.

Basauritik (Ariz): 10:00, 19:20. Jaiegunetan ez

dago zerbitzurik.

Artea-Zeberio-Ugao

Lanegun eta zapatuetan: 6:50, 8:00\*, 14:00,

16:00.

\* Igorretik urtetan da bost minutu lehenago.

Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Ugao-Zeberio-Artea

Lanegun eta zapatuetan:

Ugaotik: 7:20\*, 13:05, 15:30, 20:40.

Basauritik (Ariz): 12:45.

\* Igorreko Instituturaino heltzean dira.

Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Ermitabarri-Arrigorriaga

Jaiegunetan: 8:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.

Arrigorriaga-Ermitabarri

Jaiegunetan: 10:20, 13:20, 16:20, 19:20.

La Union 94 427 11 11

Bilbo-Gasteiz

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan

dau eta Otxandioakoak 16:00etan.

Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:30ean urtetan dau Bilbotik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan

dau eta Otxandioakoak 18:30ean.

Gasteiz-Bilbo

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:15ean urtetan dau Gasteizetik eta

Otxandioakoak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandioakoak 10:30ean urtetan

dau Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean.

Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan

dau Gasteizetik. Otxandioak ez dago.

Argitaratzailea: ZERTU Kultur Elkartea.

Helbidea: Herriko Plaza 24, 48142 Artea.

Telefonoa: 94 631 73 14.

Helbide elektronikoa: [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com)

Webgunea: [www.begitu.org](http://www.begitu.org)

Zuzendaria: Iñigo Iruarrizaga.

Erredakzino burua: Beatriz Azpiri. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 112.

Erredakzino taldea: Jon Urutxurtu.

Maketazinoa: Beatriz Azpiri eta Iñigo Iruarrizaga.

Publizitatea: Iñigo Iruarrizaga. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.

Banaketa: Leire Inuntziaga eta Laiene Pagazaurtundua (Arantzazu, Artea eta Ubide), Ibai Milikua (Areatza), Unai Agorreta eta Xabier Beitia (Bedia eta Lemoa), Amaia Uriarte (Dima), Oriol Fernandez eta Iker Perez (Igorre), Iratxe Arribas (Zeanuri), eta Berbizkunde Arroita (Zeberio).

Tirada: 7.300 ale.

Inprimategia: Iparragirre Editoriala.



Ale kopurua 7.300 / Lege gordailua SS-512/02 / ISSN zenbakia 1579-5519

## Babesleak:



Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA



## ZEURE BERBEA

### Zeure Berbea

Espazio hau irakurleentzako espazioa da. Irakurleak gura dauana adierazteko lekua. Bialdu zuen kezak, eskeronak, hausnarketak, burutazioak edota ideak karta baten bidez eta erabili BEGITU beste irakurleai zuen ikuspuntua helarazoteko. Argitaratutako derrigorrezkoa da izen osoa, NA-ren zenbakia eta herria emotea.

Zeure Berbea hamar herritan entzungo da. Zeuk daukazu berbea. Entzuteko prest gagoz. Hauxe helbidea:

Zertu Kultur Elkartea  
BEGITU aldizkaria  
Herriko Plaza 24  
48142 Artea

Edo, helbide elektronikoa honetara bialdu zure gutunak:  
[begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com)

BEGITU ALDIZKARIA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITUk eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkartea. Herriko plaza, 24. 48142 Artea edo [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com) helbidera.

## GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

### Pospolin



Berba honek dituan esanguren artean, zabalaren erabilten dana umeakaz lotuta dago. Berba maitagarritzat jo leiteke, bihotz edo amante berben antzekoa (pospoline, ahoskatuta); bikotea edo laztana danari esaten jakon berba gozoa be bada. Bigarrenik, eperra hegaziaren antzekoa da, arean txikiagoa, eta luma arre kolorekoak ditu: galeperra. Bere izena egiten dituan soinuen onomatopeiatik dator: pox-pox-poxpolin edo antzeko zeozer kantetan ei dau-eta.

## ERETXIA



### ERROSE AURREKOETXEA

Jubiladua

## Familia nekazaritza

**E**konomia zirkularra. Landa garapena. Konsumo arduratsua. Sasoiari sasoiak. Bertan bertakoa. Nekazaritza ekologikoa... azken aldiaren darabilgun hiztegi eta kontzeptuak dira. Pasa dan hilaren 23tik 25era, New Yorken klima aldateteari aurre egiteko NBERen batzarra egin eben hamaikatzeko estaduko politikarik; europarrak ei dira kezka gehien erakutsi ebenak. Hala ete da?

Zergaitik da produkzioaren ikuspegitik txarra Baserriko Nekazaritza Familiarra eta Bertakoa? Lehenengo erantzuna da eredu zaharkitua dala, iraganekoa eta horregaitik nekazaritza modernoak, enpresa erakoak, industrial eta produktiboak, ordezkatu behar dauala. Baina 2017ko zezeilaren 21ean, Elikadura eta Nekazaritzarako Nazino Batuen Erakundeak, FAOK, adierazo eban barriro be, landako nekazaritzak etorkizuna daukala, emonkorragoa dala epe luzean, eta ingurune naturala gixiagi kaltetzen dauala.

Joseba Otondok (Batzango alkatea) "Europako nekazaritza politika bateratuak" onartzeko edo eguneratzeko bezperetan, zera esan eban:

"Ba ete dago loturarik jaten dogunaz eta nekazaritzaz? Zer jan gura dogun galderari erantzuten, halako nekazaritza eredu bultzatuko dogu. Europako Nekazaritza Politika Bateratuak 1957tik aurrera diru publiko handiak bideratu ditu (azken sei urteotan 58 mila milio euro urtero). Eta zer daukagu gaur egun? Nekazal ingurua husten dago, baserri ekoizpena hankaz gora eta elikadura osasuntsua ber-

matu barik (...) Dirutza horreez nekazal eremu lasaia bermatu gura dabe politikariak, bake soziala erosteko; ez dira bardin Errumaniako nekazaritza (Europako nekazal etxalde herena bertan dago) edo Holandako etxalde guztiz modernizatuak (...) Diru murrizketa handia aurrekusten da nekazaritzarako... mozketak handiena gainera landa garapenerako (...) Beste norabide baten ibilteko aukerea be izan daiteke...".

Elikadura osasuntsua, sasoiari sasoiak, nekazaritza ekologikoa, zirkularra, bertakoa, indigena, ez bada bultzatzen, (eta diruz laguntzen), larregizko produkzio eta enpresa kapitalisten (*lobby*) esku geratzen badira Europako nekazaritza politikak, nora doaz gure baserriak?

Non ete dagoz amama Rosarioren bedar eta berbenaz eginiko ukenduak, Mirenek edota Sabinak egiten eben santigitua, Domingaren "sementarea", mediku eta maisuari Tereren esne banaketak, Tere bien odolosteak, Dionisiaren txorizoak, Mariaren sanjuan eta domusantu loreak, eta falta barik Erriteren panderoa. Apur bat dastatu dogunok esan: ba ete dago zure ortuko lan eta frutuak jaso eta jatea baino atseginagorik?

Biztu daigun eztabaidea, hausnartu politika honek nora garoetz. Pentsatu daigun Arratian badogunik zer esan. Amaman antzean auzoan eta etxerako so- loa gura neuke.



### IRUNE ELEXPE

Liburuzaina

## Udagoieneko hosto orriak...

Iragna, oraingoa, geroa.

Udagoiena sartu barri da, eta, horregaz batera, ohiko kolore horixkak, egur usaina, iluntze gorriak, hegaztien migrazinoak... musikeak be lasaiagoa dirudi. Neguaren pre- ludioa da. Transizinoa. Urteko hila- bete ezegonkorrenetarako prestatu

behar dogu gorputza. Une egokia izan daiteke geure burua Morfeoren besoetan amiltzen itzeko, Vivaldiren Fa Maiorreko 3. kontzertua entzuz, *Udagoiena* izenez ezaguna.

Udagoiena hostoak.

Hostoak orriak.

Orriak liburuak.

Liburuak iragana, oraingoa, geroa.

Antxinako Egipton, liburutegiak "arimearen ondoez aurkako sendagaiak" ziran; holan deitzean jakien, bertan sendatu eitekelako munduko gaixotasunik larriena: ez- jakintasuna.

Liburutegiak ezagutzearen ten- pluak dira, informazioaren san- tutegiak. Ahozko transmisioagaz batera, kulturearen transmisioarako tresna nagusiak dira.

UNESCOREN manifestuaren arabera, liburutegi publikoak beharrezkoak dira persona guztion askatasuna, garapena eta oparotasuna lortzeko. Liburutegiak ezagutza geureganatzeko lekuak dira, gizartearen parte aktibo izan eta geure erispideak eregi eta landuteko aukerea emoten deuskuen lekuak. Zentsura ideologiko, politiko eta erlijiosorik bako eremuak, agintarien eta interesen poderetik urrun.

Hori guztia kontuan izanda, liburutegiak funtsezkoak dira herritarren formakuntzarako, gizartearen garapen erabatekoa eta demokraziaren printzipioak sustatzen diralako.

Erakunde publikoak, finantzaketaz gainera, horreek sustatzeko bete- beharra daukie; baliabide ekonomiko eta giza baliabide egokiz hornit- zeko, erabiltzaile guztien beharizane- tara egokituz, komunitadeko kide txikiak bame.

Oso garrantzitsua da umeta- tik irakurzaletasuna bultzatzea. Funtsezkoa da liburutegiak eremu erakargarriak izatea, txikienezako diseinatuak, etorkizuneko irakur- leak izango diran heinean, persona autonomo eta askeak izateko.

"Irakurten dauan umea aske pentsauko dauan heldua izango da".

Liburutegiaren bidez, kultur on- da-reagazko errespetua sustatzen da, alkarrizketa bideratu eta aniztasun kulturalaren inguruan sentsibilizetan da. Geure kultura propioa errespetau eta errespetau arazo, desbardinak onartu eta abegitsuak izan gaitezkan.

Antxinako Egiptotik gaur egungo Arratiara. Udagoieneko hostoak lu- rrean eta orriak eskuan.

Ori artean, esku artean geure geroa.

0, 1 eta 2 urteko matrikularia zabalik

Kamengo Ama Ikastetxea

ETORRI ETA HAZI GUREKIN

Elkarrizketa pertsonalizatua

94 673 09 35 [cmtkarmengo@kamengoama.eus](mailto:cmtkarmengo@kamengoama.eus)



## LUMATUTEN



JOSU BASOZABAL

## ZAS

**2**011. urtetik aurrera, Euskal Herriko hainbat gizar-te eta erakunde ekimen, gizar-tea sensibilizetako, ekintza eta programak garatzen dabiltz Zurrumurrurik EZ/antiRUMORES estrategiaren ildotik. Giza Eskubideen, interkulturalidade eta errazismoaren kontrako ikuspuntutik sortutako gizar-te aldaketarako estrategia bat da.

Izan be, migratzaile eta beste kulturetako pertsonen gaineko oinarri bako zurrumuru, estereotipo txar eta aurreretxiak oztopo izaten dira pertsonen arteko hartu-emonetarako, intolerantzia diskursoa elikatzen dabe, eta desbardintasun, gizar-te zatiketa eta diskriminaziorako hazitegi dira.

Horregaitik, beharrezkoa da idea, persona eta taldeen perzeptzio, estereotipo, eta kontzeptuetan eragitea; gure praktikan, norbanako zein kolektiboetan, jarakerak aldatu daiguzan.

Estrategia honetako identidade zeinu esanguratsu bat, erakunde publiko, gizar-te erakunde eta norbanakoen arteko bultzadan, eta politika publikoen eta herri mobimentuen ekintzen oinarriko elementuen konbinaketan dago.

Zurrumurrurik EZ estrategiak hartu-emon estua dauka genero ikuspegi, gizar-te-inklusio, dibersidade funtzional, erlijino dibersidade, sexu orientazio, belaunaldi... Koletkito horreetakoen gaineko estereotipo txar, aurreretxi eta zurrumuru faltsuak ondorio txarrak dakar-eta kohe-sino sozialean.

Zurrumurruren Aurkako Sarea (ZAS) ointsu sortutako entidade juridikoa da, oin arte egindako lanagaz jarraituteko. Lerro honeetatik, alkarteak eta migratzaileen arloan lan egiten daben taldeak, eta Arratiako udalak eta Mankomunitadea animau gura doguz pausua emon eta sarean sartzeako; zurrumurruren aurkako jakintzak eta praktika onak konpartiduteko eta holan, diskriminazio eta xenofobiaren prebenzioan eta burrukan parte hartzeako.

## ZERTZEAN



JANIRE LOPEZ

## Herrimina

**H**auskortasunak estali egin nau gaurkoan beroki ezagun eta leun baten antzera; katramilatu dira zure berbak haurtzarokoak diren orbanen gainean. Eta ez balego zentzutasunera atzera bueltarik?

Gela haiek dagoeneko hutsik dauden arren, ikusi ahal ditut oraindik orduko zure ume-oinatz txikiak. Zure ibilera lotia asmatzen dut, eskaileraren azpitik, aukeren artean dantza-ikasian.

Sakon haztatu genuen lurra, betiko GURE izango ziren zuloen bila. Eta behar genituenak baino estuagoak ziren aterpeen babesean, itsatsi egin zitzaigun bakardadea azalean tabakoaren usaina arropatan nola.

Alde egin zuten ume haiek guztiek; inork ez die, dagoeneko, burdinezko ate haiei herdoila kentzen. Eta bien bitartean hazi egin ginen, baina guk geuk sortutako ondoezei helduta. Hazi egin ginen, izan ere ez den nonbaitekiko herriminarekin.

\* Zertzean atalean argitaratuko doguzan testuak, literarioak edota sormenekoak diranez, heltzean diran moduan argitaratuko doguz eta ez doguz gure euskera eremuan ipiniko.

Tarte hau zeuretzako be dago zabalik, holango sormen-lanak BEGITU argitaratu gura izan ezker, eskatu egiguzuz argitaratzeko baldintzak [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com) helbidean.

## BEGI TXINDORRA

**A**rratiako Kantu Bat Gara taldekoak, urri lehenengoaren 27-29ko astegiaren, Nafarroan egon ginar hainbat ekintzatan parte hartzean.

Alde batetik Oteizako herrian dagoan kultur alkarteak, laborarien harrizko kabainak eta aljibeak errekuerau dabez eta inaugurazino ekitaldian abestuteko konbidau ginduezan.

San Tirso aljibearen eta Butzandia, Kanpantxe eta Artabakoitz kabainetan kantetan ibili ginar, Oteiza inguruko landetan, inguru zoragarri baten...

Bestetik, Lizarrako kantuzaleak konbidautu, iluntzean Lizarrako alde zaharrean ibili ginar kantu biran.

**Sara Gutierrez**



**Gorosti** Lorategien Diseinu eta Gauzatzea  
Ureztaketa instalazioa  
Mantenua eta Inausketa

Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea  
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88  
gorosti@gorostiscsl.com

**agoa** Ortodontzia  
Implanteak  
Estetika

Marina Urigoitia Aldekoa  
Odonatologia

Bidebarri 1. behea  
48140 Igome-Bizkaia  
T. 94 631 50 39  
Kalejatu Zerbaita 101  
R.P.S. 21/06

**J.A. IZQUIERDO**  
PINTURA LANAK

MOKETA · SINTASOLA · PAPEREA

Elizola, 33 D - 1º · 48140 IGORRE (Bizkaia)  
Tel. 94 631 54 82 · 505 554 012

**Troka**

Lehenbiziko Aizura II



## IGORRE

# Lasarte Aretoa bete eban Udalerri Lagunkoia programaren aurkezpenak

### Erredakzioa

Urri bigarrenaren 3an, Bizi Igorrek Udalerri Lagunkoien programea eta esperientziak aurkeztu ebazan Lasarte Aretoa. Arratiako herriak eta Zornotzak jaso eben bertarauteko konbitea. Aretoa bete egin zan.

Jardunaldia Illart Gumuzio alkatearen ondo etorriagaz hasi zan eta gero Itsaso Bengoetxea Bizi Igorreko taldekide eta zinegotzia izandakoak hartu eban berbea. Bengoetxeak herri lagunkoia izatea zer dan azaldu eban. Euskadi Lagunkoia webguneak jasoten ditu bere berbak: "Euskadi Lagunkoia parte-hartze proiektu bat da, herritarren zahartzeari erantzun bat emateko sortu dana eta zerbitzu, sistema, gestino administratibo, kudeaketa eta baliabideetan egon behar diran aldaketak aztertu eta kontuan hartzean dituana". Igorreko biztanleriaren %25ek, 60 urte baino gehiago daukazala emon eban jakitera.

Abadiñoko Eduardo Gaviria eta Jose Maria Maciasen txandea izan zan gero. Honeek, Abadiño Lagunkoia barri emon eben.

### Bizi Igorre proiektu parte-hartzailea

Igorreko esperientzia Jesus Mari

Anzolak kontau eban, proiektu parte hartzailea eta persona nagusiak bultzatutakoa dala azpimarratuz. Proiektua 2013an abiatu zan, 2016an Udalerri aurkeztu eta 2017an izan zan atxikitzea. 2018an, Toronton (Kanada), nazioarteko mailan emon eben ezetutera Bizi Igorre.

Igorreko diagnostikoa eginda daukie eta bertan 224 proposamen jasoten dira; baita Ekintza Plana be. Planean, 138 ekimen jasoten dira 19 lerro estrategikotan. Oin adierazleen jarraipena egiten dabilz.

### Talde eragileak eta BFaren diru laguntzak

Bolunta alkarteko Natxo Arnaiz eta Maite Zabalak, Bizkaiko Pertsona Nagusien Kontseilutik sortutako talde eragilearen aurkezpena egin eben eta atzenik, Bizkaiko Foru Aldundiak, Euskadi Lagunkoira atxikituta dagozan herriak eskaintzen deutezan diru laguntzen barri emon eben.



## ARRATIA

# Arratia Institutuko gazteak antolatzen hasi dira klimaren aldeko burrukan

Urri lehenengoaren 27an, mundu osoan, gazteak grebak eta mobilizazioak egin ebezan, konsumo ereduaren erruz, klima, larrialdi egoeran dagoala salatuteko.

### Erredakzioa

Arratia Institutuko gazte talde bat eta Arratia Bizirik talde ekologistek be alkarlanean antolatutako ekintzak eta mobilizazioak egin ebezan. Ikasle taldea Institutuan talde ekologistea sortu guran dabil, klimaren alde mobilizetako.

Larrialdiari aurre egiteko hasi dira antolatzen. "Sano garrantzitsua da kolektibo moduan gure ahotsa sortzea, politikariak gure garrasiak entzun dagien" dino Cosmina Picirita Arratia Institutuko oindino izenik ez daukan talde ekologistako kideak. Talde honen ustez, politikariak hartu beharreko neurri garrantzitsuenak, "lehenik eta behin emergentzia klimatikoa deklaretea da, eta horregaz batera lege asko aldatzea: plastikoak erostera eta energia kutsakorrek erabilera behartzen gaituen enpresak aldatzea eta ekiditzea, hain zuzen be".

Urri lehenengoaren 27ko grebarako deialdia Picirita eta bere

lagunak egin eben gelaz gela joanda. Taldea sortu gura daben arren "momentuz airean dago, taldea sortzeako lanean gabiz, *Fridays For Future* oinarri edo erreferentzia moduan hartuta" dinoe. "Institutuko edozein sartu daiteken taldea" litzateke, aldaketa klimatikoaren inguruan mobilizetako. "Argi dago burrukan jarraituko dogula, hau lehen pausua izan da".

Greba egunean, Arratia Bizirik talde ekologistaren laguntza izan eben eta egun haretako

ekintzak alkarlanean prestatu ebezan. Aurrerantzean be, ekintzak prestatzeko alkarlanaren premina eta kontaktuan jarraitutako asmoa adierazo dabe ikasleak.

### Ikasleen greba

Ikasleen aldetik grebak segmentu handia izan arren, ez zala holan izan irakasleen aldetik salatu dabe. Izan be, orokorrean, irakasleen inplikazio eta laguntza faltea nabaritu eben. Arrastian, Bilboko manifestazioan be hartu eben parte ikasle arratiarrak, "Ez daukagu B planetarik" edo "Gure etorkizuna ez dago salgai" leloakaz bat eginaz. Konzientzia sortzeako eta jentea informetako lanean, Institutuko taldeak, aurkezpen bat prestatu eta egun bitan, emon eban patio orduan. Espero baino jente gehiago hurreratu zan, egun bietan aretoa betez. "Jenteak etorkizuna aldatzeko, konzientzia hartu behar dau, eta konzientzia hartzeako informazioa behar dau, holan jakiteko egunerokotasunean zein ekintza aldatu leiteke, modu indibidualean gauza txikiak eginaz, gero modu kolektiboan, handiak egiteko".



Arratiarrak Bilboko manifestazioan.

## ARRATIA

# Mobilizazioak Arratian sententzia judizialakaitik protesta egiteko

Altsasuko gazteai eta Kataluniako prozesu subiranistaren buruzagiei Auzitegi Gorenak emondako epaiak kalera atera ditu herritarrek, ezarritako zigorrak injustizia eta gehigakeria dirala eretxita.

### Erredakzioa

Altsasuko gazteai Auzitegi Gorenak emondako epaia irmoa da eta espetxean dagozan zazpi gazteai hiru urte eta bi hilabete, eta bederatziru urte eta sei hilabete arteko zigorrak ezarri deutsez. Jutzitza eta proportzionaltasunik ez dala egon eretxita, Euskal Herri osoan egon dira mobilizazioak. Tartean, Igorren urri bigarrenaren 10ean egindakoa. Konzentrazioan, Arratia

osotik etorritako 200 persona inguru batu ziran, Altsasuko gazteak aske itxeko eskatuten.

### Kataluniako epaia

2017ko urri bigarrenaren 1ean Katalunian independentzia erreferenduma antolatu eben buruzagiei be, bederatziru urte bitarteko zigorrak ezarri deutsez Gorenak, sedizioa eta diru publikoaren erabilera txarra egotzita.

Sententzia konfirmatu zanean,

Katalunian, eta Bartzelonan batez be, jentea kalera urten zan protestan. Garraiobide nagusiak eten eta Bartzelonako aireportua blokeatu egin eben milaka eta milaka personak. Errepide mozketak, konzentrazioak eta manifestazio jentetsuak egin ziran Katalunia osoan.

### Mobilizazioak Euskal Herrian

Euskal Herrian be egin ziran mobilizazioak Kataluniako buruzagiei ezarritako zigorraren kontra. Arratiako hainbat herritako plazetan be egin ziran protestak.

Deialdia, Gure Esku Dago plataforma egin eban, sententzia horrek guztion eskubideai eragiten deustela eretxita. Konzentrazio zaratatsuak deitu ebazan uriburu, herri eta auzoetako plazetan, sententzia emon zan egunean bertan, hilaren 14an, Erreferenduma ez da delitua lelopean. GEDren arabera, 200 herri edo auzo baino gehiagotan egin ziran konzentrazioak.

Arratian, Areatzan 100 bat lagun, Diman 50 inguru, Igorren 30 bat eta Zeberion 40 bat batu ziran protestea adierazoteko.



Goian Igorren egindako konzentrazioa Altsasuko epaia salatuteko eta behean Areatzakoa Kataluniako auziaren epaia salatuteko.



## ARRATIA

**Areatzako Euskal Jaiak musikea izango dau gaitzat**

**Aurtengo Ondarearen Europako Jardunaldiak, ondarearen izakera kolektiboan ipiniko dabe fokoa eta Areatzan, Igorren eta Zeanurin, prestatu ditue hainbat jarduera programa horren barruan.**

**Erredakzioa**

Aurreko hamabostaldian ibilbide gidatu bi egon ziran. Oingo hamabostaldian, Areatzak Euskal Jaia ospatuko dau hilaren 19an; Igorren, Angel Larrea historialariak adierazpen kultural tradizionalen gaineko berbaldia emongo dau 23an, eta Zeanurin, 19an hasita, hainbat ekitaldi egongo dira Andra Mari parrokia erre zaneko mendea beteten danean.

**Areatzako Euskal Jaia**

Urri bigarrenaren 19an, goizetik gauerako egitaraua prestatu dabe Areatzan, Euskal Jaiko aurtengo edizino honetan musikea plazara aterateko asmoz. Baina egun bi lehenago hasiko dira gaiari lotutako jarduerakaz.

Holan, hilaren 17an, 19:30ean, Udal Aretoan, Itsaso Arrietak kantu tailerra emongo dau. Bertan, kantu herrikoiak oinarri hartuta, partaideak, ahozko tradizioan agertzen diran sinboloen eta barneko mezuen gaineko argibideak jasoko dabez; baita zeharkako mezuak interpretetako baliabideak, euren kantuen erreperitorioa aberastuteaz gainera.

Hurrengo egunean, hilak 18, goizean, 11:30ean, Udal Aretoan "Txistuman" izango da. Ivan Allue Hermosilla "Txistuman" musikariak, Euskal Herriko eta munduko instrumentu tradizionalai buruzko kontzertu xelebrea eskainiko deutse bertaratutakoai.

Zapatuan Euskal Jaia kalejireagaz hasiko da 12:00etan. Bertan,

**Jantzariak Areatzako plazan.**

Areatzako txistulariak, Eusko Lorak taldeko joaldunak, Bizkaiko Gaiteroak eta Areatzako eta Ondalango erraldoiak eta Arratiako musikari handiak txotxongiloak ibiliko dira. Eguerdiko 13:00etan, Ugarte anaiak, *Txakunaren bidean* txalaparta saioa eskainiko dabe, eta gero, 13:30ean, Tio Teronen Semeak, *FreshCool* musika eta jantza ikuskizuna. 15:00etan, bazkaria egongo da frontoian. Arrastian, 17:00etan, Ein GO taldeagaz poitea; 19:15ean, erromeria Bizkaiko Gaiteroakaz; 20:00etan, Larrain jantzea; 20:30ean, berakatz zopea eta txahal errea, eta 22:00etan, erromeria Tximeleta taldeagaz. Eta betiko moduan, egun osoan, postuak egongo dira inguruko hainbat produktu erosi ahal izateko.

**Igorre eta Zeanuriko jarduerak**

Igorren, Angel Larrea historialariak Arratiako adierazpen kultural tradizionalen gaineko berbaldia emongo dau hilaren 23an, 19:00etan, Kultur Etxean. Batez be, XX. gizaldiko aisialdiko jardueren gainean egingo dau berba: herri kirolak, jokoak eta ermita eta santutegietako jaietan egindako erromeriak, beste batzuen artean.

Zeanurin barriz, Andra Mari parrokia erre zaneko mendeurrena gogora ekarteko hilaren 19an, ibilbide gidatua egongo da Eleizondotik; 25ean, Ander Mantrolak berbaldia egingo dau, eta 26an, Kandelen gaua, kandela argitan ibilbide musikala.

## LEMOA

**Urri lehenengoko bost bonoak baditue jaubeak****Erredakzioa**

Lemoako Udalak herriko merkataritza sustatzeko, bertako establezimentu eta komertzioak eza-gutzero emoteko eta euskerearen erabilera handitzeko "Lemoan saldu eta erosi euskeraz" izeneko kanpaina ipini eban martxan urri lehenengoan. Hile haretan, kanpaina parte hartzean daben

27 komertzioetan, agurra euskeraz egin ebenen artean, 310,5 euroko bost bono zozketatu ditue. Merkatariek pozik agertu dira emaitzagaz eta euskerearen erabilera be eragina izan dauala dinoe askok.

5.000 izen baino gehiagok hartu dabe parte zozketan. Maria Viquerizo, Pedro Romero, Jose Luis Ordeñana, Eduvigis Brazo eta Iker Mintegi izan dira saridunak. Bako-

txak 11,5 euroko 27 bono jaso ditu, 27 komertzioetan erabilteko.

**Kanpainearen bigarren zatia**

Oingo hilean be jarraituten dau kanpaineak. Bigarren zati honetan, 310,5 euroko lau bono eta 1.500 euroko biaje bat zozketatuko dira. Zozketea zemendiaren hasikeran izango da.

**Saridunak Saioa Elejabarrieta Lemoako alkateagaz.**

## IGORRE

**Aralucen ordu biko lan-ixteak egiten dabilz**

**BATZek Araluce erosi eban 2016an. Hiru hilabetetan eroslerik ez badauka deuseztatuko dau.**

**Erredakzioa**

Araluceren aurreko jaubea inbersino-funts bat zan eta horren buru, industria-figura moduan Roberto Arenas. BATZek bere trokelgintza handituteko Araluce erosi gura eban. Enpresea erosi ahal izateko, BATZek Araluceri eskaini eutsan produkzio ahalmena betetea, apurka-apurka lan gama osoak ezartzea eta etorkizunerako bidegarritasuna bermatzea, Araluce BATZ taldean sartuz. Horretarako, Araluceko langileak, soldatak %9, %10 edo %12 murriztu behar eben eta urtean lanordu gehiago egin. Baita murrizketa sozial batzuk be. Beharginak, BATZen baldintza guztiak onartu ebezan lanpostu guztien bidegarritasuna bermatuteko eta Araluce bere aktibidadeagaz jarraitu ahal izateko. 2016ko bagilean, BATZek Araluceren akzino guztiak, %100, erosi eban, Araluceko Enpresa Komiteak BEGITURI jakinarazotakoaren arabera.

Aurtengo urri bigarrenaren 3an, Enpresa Komitea bilera batera deitu eben eta han, enpresai amaiera emoten espezialdutako abogadu bi egon ziran, Tomas Garcia eta Fidel Merino, hain zuzen be. Euren azaldu eutseen komitekoai, BATZek Araluce salgai ipintea ebatzi daua eta salmenta epe laburrean gertatuko ez balitz, Araluce deuseztatzeari ekingo eutsiela. Aralucen, 141 langilek egiten dabe behar.

**Lan-ixteak**

Egoera honen aurrean, langileak urri bigarrenaren 15ean, 13:00etatik 15:00etara lan-ixtea egiteari ekin eutsien aste osoan jarraituteko asmoz. Martitzenean manifestazinoa be egin eben.

Erosle baten zain, likidatzaile, abogadu eta ordezkari sindikalak batzartuten jarraituten dabe langileak. Greba mugabakoa be erregistrata daukie, konponbiderik ez bada lortzean, grebara joteko.

## ARRATIA

**Gorputza entzuten ikasteko tailerra Zeanurin****Erredakzioa**

Ilgoran Arratiako Jabekuntza Eskolako lehenengo tailerra, *Cuando el dolor nos habla, aprendiendo a escuchar mi cuerpo*, Erica Mayoren eskutik, urri bigarrenaren 16an hasiko da eta lau saio izango ditu. Eskolak, hilaren 16an, 23an, 30ean eta zemendiaren 6an izango dira 18:00etatik 20:30era arte Zeanuriko Kultur Etxean. Ikastaroa, Mazala Zeanuriko Andra Taldeak antolatu dau eta 10 euroko prezioa dauka.

Mina gure egunerokotasunaren parte danean, eragin handia dauka gure bizi kalidadean. Tailer honetan partaideak, horren jatorria bilatuko dabe eztabaida eta hausnarketan bitartez eta gorputz teknika eta erlazazinoa erabiliz, minen ezagutzan sakonduko dabe.

**Etxebizitza eta alkarbizitza zahartzaroen**

Edadeko andrentzako Morea eta Grisa atalaren barruan; hau da, zahartzaroen feminismotik eregiteko Jabekuntza Eskolako ardatzaren barruan, urri bigarrenaren 24an, 17:30ean, Monica Ramos Torok, *Envejecer siendo mujer* liburua-aren egileak, etxebizitza eta alkarbizitza aukeren gaineko berbaldia egingo dau Igorreko Kultur Etxean.

Hurrengo egunean, berbaldiak eragindako hausnarketak eta eztabaiden barri emongo deutse andrak alkarreari, etxebizitza eta alkarbizitza eredu feministak irudikatzeke. Kultur Etxean izango da 18:00etatik 20:00etara.



## IGORRE

# Udala herritarrakaz batzartu da 2020ko aurrekontuak begira

### Erredakzioa

Aurreko urteetan, Igorreko Udalak maiatzean egin izan ditu batzarrak, baina aurreko, hauteskundeak dirala-eta atzeratu behar izan ebezan eta urrietan egin ditue.

Bederatzi batzar izan dira, urri lehenengoaren 24an lehenengo eta urri bigarrenaren 2an izan ziran atzena. Aurreko urteetan legez, auzoetan eta gazteakaz, jubiladuakaz eta kultura eta kirol alkarreaz batu dira udal ordezkariak.

Lehenengo, urri lehenengoaren 24an izan zan, Urkuzu eta Garakoiko bizilagunakaz eta atzena, urri bigarrenaren 2an, Olabari, Lehendakari Agirre, Sabino Arana, Elxalde eta Udeakoakaz. Parte hartzearen aldetik "aurreko urtean antzera. Ekarpinak be egon dira



eta kontuan izango doguz" azaldu deutso BEGITURI Illart Gumuzio Igoerreko alkateak.

### Auzoetako Batzordea

Oin arte, aurrekontuetarako urtean behin egiten ziran auzotar eta udal ordezkarien arteko batzarrak baina sarriago egiteko asmoa dago. "Auzoetako Batzorde bat sortu dogu eta asmoa da gitxi gorabehera hiru hilabeteko maiztasunagaz batzarrak egitea. Bertan auzo bakoitzeko bina ordezkari eta udal ordezkariak egongo dira: EAJ-PNVko bi eta beste bi EH Bildukoak. Helburua da maiztasun handiago batez jarraipena egitea horri eta holan eguneratuago egongo dira auzoaren eskaerak. Urtebeteko epean, batzuetan eskaerak zaharkituta geratzen dira eta" dino Gumuziok.

## ARRATIA

# Metalgintza arloko bost eguneko greba mugarriztat jo dabe langileen ordezkariak

Urri lehenengoaren 30etik urri bigarrenaren 4ra arte, greban izan ziran Bizkaiko metalgintzako langileak, hitzarmen duin bat eskatzen.



Langileak greban.

### Erredakzioa

Arratian grebak, jarraipen sano handia izan ebala dinoe sindikatuak, %90 ingurukoa, LABen arabera. Bilboko manifestazio jentetsuan be izan ziran Arratiako metaleko langileak. ELA, CCOO, LAB, UGT, ESK, CGT, USO eta CNT sindikatuak deitu ebezan langileak grebara, ez ohiko batasun sindikala

erakutsiz. Eta hainbat gizarte eragilek be babeska emon eutseen langileak: pensinodunak, Eragin gazte prekarioen plataformeak, ikasle mobimentuak, mobimentu feministak eta Harro LGTBI plataformeak, hain zuzen be.

Patronalak, grebaren jarraipena %20 inguru izan zala esan eban eta Urkullu Lehendakariak, Forum Europar emondako berbaldian,

patronala saiatu dala akordioa lortzean eta sindikatuen jarkerea kritikau eban. FVEM Bizkaiko Metalgintzako patronalak, atzenengo negoziazio mahaira proposamenak ez eban arren, proposamenak ez eban langileen eskakizunak beteten eta bost eguneko greba deitu eben sindikatuak. Negoziazio mahaiari, ELA, CCOO, LAB eta UGT sindikatuak egon dira

eta mobilizazioetan, ESK, USO, CGT eta CNT-k bat egin dabe, batasun sindikala lortuz.

Hitzarmena 10 urtez izoztuta egon ondoren, erosteko ahalmenaren galerearen kontra egiteko moduko soldaten igoera erreala, subrogazioa, bardintasun plan "ganorazkoak" eta plan horreei segimendua eta lan osasunean benetako bermeak eskatzen ditue sindikatuak eta horreek lortu ezean, mobilizazioetan jarraituko dabela dinoe langileen ordezkariak.

### Arratian segmentu handia

Enpresa guztietan ez dagoenez ordezkariak sindikala, zaila da jakitea zehatz zenbatekoa izan zan grebaren jarraipena. Baina Arratiako metalgintzan, ekoizpena "orokorrean, geratuta egon zala" dino Agus Figal LABekoak, eta jarraipena oso handia izan zala bost egunetan. Pikete informatiboak egunero pasau ziran industrialguneetatik eta hori eraginkorra izaten da.

Urrietako aste honetako burrukaldiak, mugarri bat ezarri dauala uste dau LABek. "Ez dakigu patronalaren aldetik zein izango dan jarkerea. Gurea irekia da. Prest gagoz berba egiteko baina horretarako proposamenak ekarri behar dira. Oin patronalari toketan jako mobidutea. Ez badago mobimenturik barriro kalera urtego gara. Uste dogu oingo burrukaldiak mugarri bat ezarri dauala, hemendik aurrera ez dala bardina izango".

## Aste baten kronika

Tamara Martin eta Juankar Vizan, Hego Uribe-Arratiako LABeko industria arduradunak

Azken asteon (urri lehenengoaren 30etik urri bigarrenaren 4ra) oin dala urte t'erditik oin arte antzua izan dan negoziazioa berbiztu guran kalera aterateko beharra ikusi dogu. Patronalak 55.000 langile (Arratian 3.000 baino gehiago) biltzean dituan hitzarmena eskuratzeko egiten gabizan negoziazio prozesuari ez deutso urtenbide duinik emon eta grebara bultzatu gaitu. Uda baino lehen 5 egun greba eta zenbait mobilizazio eginda nahikoa ez zan antza! Gure eskakizunak ez dira erraldoiak, xume-xumeak baino. Oin dala 10 urte baino gehiago bahituta dagoan hitzarmenari bizitza emon gura izan deusagu, guretzat hitzarmena lan baldintza duinak bermatzen dituan berme bakarrenetarikoa dalako eta oingoan, barriro be, burrukea biztu dogu, justizia eta gizartearen trinkotasunaren osagai guztiak barnebiltzea bilatzen dituan hitzarmena lortzeako ezinbesteko tresna dogun burrukea.

Negoziazio kolektiboak langile guztiak babestea dauka helburu, beraz, alkartasuna dau oinarri. Langileok

negoziazioaren bitartez, sortzean dogun aberastasunaren banaketa juxtuagoa bilatzen dogu, gitxi batzuen eskuetan dana geratu ez daiten (patronalak gizartearen zati txikitxo bat bada be etekinen monopolioa dauka eta langilegoak, bizi-irauteko apurak baino ez doguz jasoten).

Soldata igoerak, subrogazioa, lanaldia murriztu, behin-behinekotasuna mugatu, bardintasun plan eraginkorrak abiatu eta bermatu, lan erreformaren aurkako klausulak (ultraktibidade mugabakoa) lan osasuna... Oinarrizko duintasuna biltzean dituan eskaera taularen puntu garrantzizkoenak dira, eta horreexek be ez ditue onartu.

Norberak jarkerea zehaztu dauan astea izan dogu igarotako burruka astea. EAJ-PNVk zenbait udaletxetan ez dau sindikatuok sartutako mozinoa onartu, hainbatetan, ezta eztabaidarako be (Lemoako udaletxean ez eban gure mozinoaren aldeko botorikemon).Urkullu be jarkera honerri jarraiki nabarmendu da patronalaren jarraitzaileen artean. Hitzarmenaren negoziazioaren porrotaren erantzukizuna sindikatuongan jarriz. Dalako jarkerak oldaraldia sortu dau patronalaren ordezkari gisa agertu dan "Lehendakaria"ren kontra, baita zantzu argiak be itxi ditu noren kontra gabizan jakin daigun. Herriak, baina, bat egin dau langileon eskakizunakaz eta astea alkartasun keinuz gainezka egon

da. Harro-k, pensionistak, mobimentu feministak, gazte mobimentuak, zenbait indar politikok... Milaka personak zelan edo halan adierazo dabe burruka honegatzko alkartasuna, kolektibo baten eskaera baino harago doan kontua dala jabetuta. Aberastasunaren banaketea, oinarrizko lan baldintzen eskubideak, lanaren banaketea eta lanaren duintzea ezinbestekoa dalako edozein gizartek bizitza duina bermatu dagian, danok merezidu dogun bizitza bizi ahal izateko eta horixe, hain zuzen be, ukatzen deuskue.

Azken aste honek, lehenaldia eta geroaldiaren arteko mugarri garbia zehaztu dau. Bizkaia astindu dauan burrukaldia izan da eta ez dau inork ezdeustzat jo. Ehunka mobilizazio, barikuan 20.000 persona Bilbon. Ehunka enpresa zarratuta. Kaleak langilez beteta, langileak greban. Herri mobimentuak bat egin dau mobilizazio asteagaz... Patronalaren jarkera hertsia ez jaku ulergarri suertatzen, ez guri, ezta inori be, eta beste urtenbiderik ez daukie, negoziazioari bidea emotea baino. Baina ezlogikaren bidean segitzea ebatziko balebe, LABen argi daukagu. Lantokiak eta kaleak duintasunez beteten jarraituko doguz, langileok egiten gabizen bidea ondoen definiduten dauan berbea duintasuna dalako.

Gora langileria!

Hitzarmena orain eta balditza barik!



## SALDA BADAGO

# Arratiako Feminismoa Euskal Herriko V. Jardunaldi Feministetarako prest

Noka, Orratzak, Zaplast, Andraizea, Mazala, Arteako Andra Taldea eta Arantzazuko Andra Taldea... inoiz baino andra talde eta talde feminista gehiago dagoz Arratian.



## Euskal Herriko Jardunaldi Feministak

Euskal Herriko Jardunaldi Feministak mobimentu feminista autonomoak mobimentuaren ildo estrategiko nagusiak eztabaidatzeko antolatutako jardunaldiak dira. Lehenak, 1977ko abenduan izan ziran Leioan eta 3.000 andra bertaratu ziran. Harrezkerotik, 1984an eta 1994an EHUko Leioako Campusean, eta 2008an Portugaleteko Nautika Eskolan antolatu ziran.

Urte honeetan, ugariak eta oso anitzak izan dira bertan izandako

eztabaidagaiak, momentuan momentuko errealidade eta preminai erantzuten eutseenak: sexualitatea, abortua eta antisorgailuak, bortxaketak, familia-plangintzea, medikuntza eta andrak, patriarkadua, militantzia eredu, lana eta lanaren banaketea, hezkidetzea, aurrera begirako alternatibak, zientzia, osasuna, militarismoa, pornografia, indarkeria sexista, gorputzak eta identitateak... Eta gai honeek guztiak jardunaldien helburu nagusiak erantzun izan deutsee. Hau da, hausnarketa teoriko kolektiboari, talde feministen alkar ezagutza eta saretzeari, hain zuzen be.

Atzen jardunaldietatik hamar urte pasau dira eta testuingurua aldatu egin da Euskal Herrian eta munduan. Egoerearen analisiak partekatze eta estrategia bateratuak zehazteko batuko dira feministak zemendiaren lehenengo egunetan Durangon.

## Bost ardatz

Gaiak alkarren arteko loturea izan arren, eztabaidak ordenetako eta funtzionamentua errazteko bost ardatzetan antolatuko dira gaiak.

Lehenengo ardatza, Mugimendu Feministaren erraiei begira, mobimentu feministaren barne egitura eta osaketaren gainekoa izango da. Bigarrenak, Gure bizitzak erdiguneratzeko agenda partekatua izenpean, guztiontzat bizitza bizigarriak

lortzeko estrategiak bilatuko dauz. Hirugarren ardatza, Indarkeriarik gabeko bizitza eraikitzen izenekoa da; sistema patriarkal kapitalistek zigorra eta biolentzia ditu tresna nagusi eta hortik ateratzeko neurriak bilatuko ditue ardatz honetan. Laugarrena, Gorputzak, burujabetzak eta dekolonialitatea deitzean da. Mobimentu feministaren aldari historikoa izan da gorputzarena, bertan sinbolizetan dalako andren autonomia eta burujabetza; alde horretatik oingo egoerak planteetan dituan erronkak landuko dira hemen. Bosgarren ardatza, Sexualitateak izango da eta hemen, desirak daukan potentzialtasun politikoa aztertuko da.

**\*Oharra:** BEGITUREN 325. zenbakian, bigarren saria irabazi eban argazkiaren izenean akats ortografikoa dago. *Marroixko leihotik begire* da argazkiaren izena. Parkatu eragozpenak.

## Erredakzioa

Zemendiaren 1, 2 eta 3an, Salda Badago izenpean, Euskal Herriko V. Jardunaldi Feministak izango dira Durangon. Arratiako feministak han izango dira, sinergiak aprobetxatu eta salda horregaz mobimentua elikatzeko.

Jardunaldiak baino lehenago, herrietako taldeak batu eta diagnostikoa egin dabe. "Diagnostikoa atera dogu, argazkia, jardunaldiara eroateko. Zeintzuk diran taldeak, ze panorama ikusten dogun... Zein dan etorkizuna, nondik gatozen eta nora goazen" azaldu deutso BEGITURI Idoia Legarreta Nokakoak.

Ahuldadeak eta indarguneak aztertu ondoren, feminismoa Arratian indartsu dagoala uste dabe. Izan be, atzen urteotan, ibilbide luzeagoa daukien taldeak, andra gaztez osotutako taldeak gehitu jakiez, Orratzak Igorren eta Zaplast Lemoan, hain zuzen be. Karme

le Beobide Mazala taldekoaren estimazioen arabera, andra antolatu kopurua 60 eta 100 bitartean egon daiteke egun.

Formakuntzari jagokonean be, feminismoan sakontzeko garrantzia handiko tresna bat dago eskualdean; Ilgoran Jabekuntza Eskolea, hain zuzen be. Izan be, Arratiako Jabekuntza Eskoleak, egoitzarik ez daukan arren, feminismo aldetik kalidatezko programazioa eskaintzen dau herriz herri. Ikasturtero herri guztietan egoten da ikastaro edo tailerren bat, baina bertara ez dira hurreratzen herri horretakoak bakarrik, Arratia osotik eta kanpotik etorritako ikasleak baino. "Jabekuntza Eskolea feminismoan formaziorako ardatza da eta Arratian badagoala alkarlana ikusten da" dino Kari Basozabal Areatzakoak.

Arratiako feminismoa dinamika propio bila dabil eta taldeetako partaideak hor ipini gura dabe azentua.



**DIZIPLINA ANITZEKO ZENTRUA**

- Psikologia
- Logopedia
- Fisioterapia
- Ulermen tailerra
- Jarrera arazoak
- Emozioen tailerra
- Psikomotrizitatea
- Adimen emozionala
- Trebetasun sozialak
- Estimulazio goiztiarra
- Eta askoz gehiago...

652 702 650 / 672 481 370  
Lehendakari Agirre 4 · Igorre  
maite.eileke@gmail.com

**ZURE ZERBITZURA**  
Avia guztira 192 gasolindegia  
Avia Adenor 35 gasolindegia

**ADENOR Igorre**  
[www.aviaenergias.es](http://www.aviaenergias.es)

Explanada Punta Ceballos z/g  
48508 Zierbena (Bizkaia)  
Tel. +34 944 130 159

**Banaketa**  
**Berogailuetarako**  
**gasolio zerbitzua**

**AVIA**

**GURE BIHOTZA**  
Operazio zentroa  
Bilboko Portu Autonomoan



KARABIE GAZTETXEAREN 20. URTEURRENA

# Karabie Gaztetxea: hogei urte herria koloreztatzen

Harriketarrak Lemoako Gazte Asanbladeak, karabi zaharrea lehenengo Gaztetxea egin ebanetik 20 urte bete dirala ospatuko dabe urri bigarrenaren 25, 26 eta 27an.



## Erredakzioa

Lemoako erreferente ezinbestekoa da Karabie Gaztetxea eta hogei urteko ibilbide oparo horrek ospakizuna merezidu dauanez hiru egunetako egitaraua prestatu dabe.

Lemoako Gazte Asanbladak 1999 urtean sortu eban Karabie Gaztetxea. Harrobian egoan txabola bat hartu eben horretarako eta horregaitik ipini eutsen Karabie izena. Urtebete beranduago erre egin zan txabolea eta harrezkeroztik eskolak izandako Udalaren eraikinera aldatu ziran gazteak.

Hogei urteotan, Lemoako gizarte eragile aktiboa izan da Gaztetxea, herriko bizitzaren parte.

"Beti euki dogun mezu bat da, Milaka amets, norabide bakarra. Hau da, Gaztetxean, amets piloa bete ahal izan dogu, alkarregaz eta batera egin dogulako lan. Herria koloreztatu egin dogu. Talde piloa urten da hemendik: Lemoa Harrera, erreferentziak laguntzeko taldea hemendik sortu da, Zaplast talde feministea, batzartuten da hemen, AK Arlonagusiko Kornerra Harrobi futbol taldearen jarraitzaileak be hemen batzartuten dira..." azaldu deusie BEGITURI Harriketarrak Asanbladakoak.

## Ospakizuna eta aldarrikapena

Jaiari hasikerea emoteko, txupina hilaren 25ean, barikuan, botako

dabe, 18:30ean, Gaztetxe azpiko parkinean. Ondoren, herriko triki poteoari ekingo deusie. Trikitixea jotzen daben Arratiako Musika Eskolako Lemoako gazte eta umeak eta jotzen dakian eta gura dauan beste edonork ipiniko dabe musikea.

Afaria, 21:30ean izango da parkinean, karpapean. "Karpa bat ipiniko da eta dana egingo da bertan. Ez da egingo ezer Gaztetxean. Dana izango da kanpoan aurten" azaldu deusie BEGITURI Harriketarrak Gazte Asanbladakoak. Izan be, aurreko urteetan ikusi dabe barruan egiten diranean kontzertuak, jente asko kanpoan geratuten dala, lekua txiki eristen jakielako-edo.

Afalostean, 20 urte honeek

laburbildu gura dituan ekitaldia egingo da. "Ekitaldia izango da 20 urteak ospatuteko eta gure mezua zabalduteko. Musika zuzenean egongo da denpora guztian, ze hori da gure esentzia. Eta sorpresatxoak be egongo dira, ipuintxo bat kontauko da... Eta gero etorkizunera begira, gure mezua: asanbladan oinarrituta gagozala, autogestinoan, antolakuntzan, baina sorkuntzatik eta gure umorea ipinten dogula gauza guztietan". Afalostea, In Bi Gu taldearen swing eta jazz arteko musika jantzagarrak girotuko dau, musika gozoa eskainiz, jantzan egiteko zein afalosteko barriketaldietarako.

Zapatuan ospakizunak 18:30ean hasiko dira Erruda poteoa deitu daben poteo musikatuagaz. Musikea DJ Reimyk ipiniko dau, bere bizikleta gaineko Sound System-agaz eta partaideak, bizikletan, patinetan edo gurpildun edozerren gainean ibiliko dira poteoan. Bizikletetan banderaxo erreibindikatzaileak eroango dabez, jaigiroa eta aldarrikapena buztartuz.

Kontzertuak 21:00etan hasiko dira Gaztetxe azpiko parkineko karpan. Zeinkek, The Riff Trucers-ek, Moonshine Wagonek, Bad Soundek eta Gorka Suaia eta Mad Muaselek joko dabe. Zeinke, Lemoan sortutako taldea da eta 20 urte harriketarrek kantea sortu dau. Youtuben entzun daiteke kantua, eta urteurreneko ospakizunean zuzenean joko dabe. Afalduteko bokatak egongo dira salgai.

Hurrengo egunean, desmontajea eta garbiketea. "Kartelean ipi-

ni gura izan dogu, mundu guztia konziente izateko Gaztetxean egiten danean jai bat edo edozein ekintza, prestaketa, ekintza bera egin, eta, ostean, batu egin behar dala. Batu be bai. Geuk egiten dogu eta geuk garbituten dogu. Hori da gure filosofia. Eta ez dakigu zein puntutaraino jentea dan konziente, kontzertu bat edo dagoanean, hurrengo egunean txanda bat dagoala Gaztetxea garbituteko. Eta hori asanbladan erabakiten dan zeozer dala: inportantea eta politikoa" dinoe Harriketarrak.

Urteurren ospakizunak amaituteko meriendea egongo da; gauzai amaiera emoteko, alkarregaz jatea baino gauza ederragorik ez dagoalako.

## Gaztetxea antolakuntzarako espazioa

Herria koloreztatuteaz gainera, Harriketarren beste aldarrikapen historiko bat, Herri bat, Gaztetxe bat izan da. "Gaztetxea antolakuntza espazio moduan erreibindiketan dogu. Ondo paseteaz gainera, azken helburua gazteok zeozertarako antolatutea be badalako. Antolatutearen beharrian hori adierazo eta hurrengo belaunaldiari zera esateko: espazio hau dago, erabili!".

Erreleboa be egongo dala uste dabe, oin arte egon dan moduan. Baita gauzak ez dirala bardinak izango 20. urteurrenaren ondoren be. Baina horixe dauka bizirik egoteak, momentu baxotxa diferentea dala eta egokitzen jakin behar dala. Karabiek egin dauan moduan, autogestino eta sormenagaz herria kolorez betez.





## TXIRRINDULARITZEA

# Murias talde profesionala desagertu arren, Arratiako Ziklista Eskoleagaz lanean jarraituko dau eraikuntza enpresek

Euskadi-Murias Profesional-Kontinental mailako ziklismo taldeak, babeslerik eza dala eta desagertu egingo dala emon dau jakitera. Izan be, eraikuntza enpresek urtean urtean 1,5 milioe euro ipini ditu taldearentzat eta babesle barriak behar ziran aurrera jarraituteko, baina ez dabe lortu ez erakunde publikorik ezta enpresarik dirua ipinteko.

**Erredakzioa**

Murias eraikuntza enpresek Arratia Ziklista Eskolea, kadete taldea eta Igorreko Ziklo-krosa babesten dauz. Muriasek ez dauala hori aldatuko dino Juan Mari Zurinaga AZEko presidentek.

Urri bigarrenean amaituten da epea taldeak hurrengo urterako UCIn izena emoteko eta Euskadi-Murias taldeak ez dau jarraituko, baina denporaldia amaituko dauala dino Zurinagak. "Oin arte berbatutako guztia kunplidutea dogu eta tenporadea kunplidutea gura dogu" azaldu deutso BEGIRURI.

Bost urte egin ditu taldeak. "Lehenengotik kontratua 3 urterako izan zan. Eta promesa asko egon ziran politikarien aldetik, eta beste enpresa batzuen aldetik... Baina ez dabe dirurik emon. Gero kontratua luzatu zan, laugarren urtea eta ezer be ez. Eta bosgarren urtean enpresek ebatzi dau taldea desagertzea beste babeslerik egon ezean. Izan be, urtean urtean, milioe t'ardi euro kostau izan jako taldea Muriaseri" dino AZEko presidentek.

**Pedal eguna**

Eskoleak, urri lehenengoaren 28an, AZEK kaminoko ziklismo

tenporaldiari amaiera emon eutsan martxa bategaz. Ikasle txikerrenak 3 kilometro eta 300 metroko ibilbidea egin eben eta nagusiagotxoak 10 kilometroko ibilbidea. Eurekaz batera, gura eben gurasoak eta aitita-amamak hartu eben parte. Gero umeentzako jolasak egon ziran eta bertaratutako guztientzako kopaua.

Baina, akaso etorkizuneko txirrindulariai ilusino handiena egin eutsena izan zan Murias taldeko bost profesional egon ziral ber-tan, autografoak sinatzen eta galderak erantzuten. Mikel Bizkarra, Ander Barrenetxea, Gari Bravo,

Markel Irizar eta Mikel Aristi izan ziran tenporaldi amaierako martxako egunean Igorren egon ziranak.

**Ziklo-kros denporaldia**

Ziklo-kros denporaldia urri bigarrenaren 12an hasi da, Urduñan. Arratiako Ziklista Eskolako kadete eta juniorrak parte hartuko dabe ziklo-kroseko probetan.

Igorreko ziklo-krosa abenduaren 8an izango da. Internazionala izango dala uste dau AZEko presidentek, baina oindino "tratuetan" dabiz eta ez dakie "nortzuk ekarri ahal izango" dabezan.



Murias taldeko txirrindulariak Igorren.

## MENDI LASTERKETEAK

## Lemoatx Trail Bizkaiko Mendi Lasterketen 1. Ligan dago

**Erredakzioa**

Zemendiaren 17an izango da Ganzabal Mendi Taldeak antolatutako IV. Lemoatx Trail Mendi Lasterketea. Ibilbide bi izango ditu, bata 16 kilometrokoa eta bestea 24koa. Ibilbide bakotxa egiteko modu bi egongo dira aukeran, martxea eta lasterketea. Lasterketak, Bizkaiko Mendi Lasterketen 1. Ligarako puntuagarriak izango dira,

24 kilometrokoa kategoria absolutuan eta 16koa Junior mailan. Gainera aurten, nobedade moduan, umeentzako ibilbide bat egongo da. Izan be, umeak eta gurasoak 7,5 kilometroko Lemoatx PR-BI 56 ibilbidea egin ahal izango dabe.

**Mendi Lasterketen 1. Liga**

Maila absolutuan, 19 dira puntuagarriak diran lasterketak. Lemoakoa azken-aurrekoa da. Ligea zezeilearen

17an hasi zan. Junior mailan barriz, 8 lasterketa dagoz ligan. Lemoatx Trail kategoria bietan da puntuagarria.

Izena zemendiaren 13ra arte emon daiteke [kirolprobak.com](http://kirolprobak.com) webgunean.



## MENDI MARTXEA

## Aurten ez da Igorreko Mugari Bira egingo

**Erredakzioa**

Hogeta hamar urtetan, urtero-urtero Igorreko Mugari Bira antola-

tu ostean eta ikusita partaidetza gitxitzen joan dala, mendi ibilaldia antolatu izan dauan Motxogan Kultur Taldeak, antolaketeagaz ez jarraitutea ebatzi dau eta aurten ez da Igorreko Mugari Birarik egingo.

Horren barri emon dabe antolatzaileak ohar baten bidez, eta bertan, eskerrak be emoten deutseez, hogeta hamaika urte honeetan mendi martxea gauzatzeko lagundu daben eta parte hartu daben guztiai.

## AZKOREA

## Atutxa ez da Aizkolarien Txapelketa Nagusiko finalerako sailkatu

**Erredakzioa**

Urri bigarrenaren 5ean jokatu zan Gasteizen Lehen Mailako Euskal Herriko Aizkora Txapelketako finalerdia, eta Aitzol Atutxa finaletik kanpo geratu zan. Ezustekoa izan da, dimoztarrak Euskal Herriko atzen bost txapelak irabazi ditu eta. Lana amaitzen lehenengoa Iker Vicente izan zan eta Atutxak bederatzigarren egin eban.

Egin beharreko lana kanardiko bi, 60 ontzako beste bi, eta oinbiko bat moztea izan zan. Iker Vicentek 18 minutu eta 11 segundotan amaitu eban. Bigarren Mikel Larrañaga izan zan (18:35); hirugarren, Julen Al-

berdi (20:08); laugarren, Iñaki Azurmendi (20:59); bosgarren, Eneko Otaño (21:12) eta seigarren Jon Rekondo (21:18). Sei horreek finalean sartu ziran.

Finaletik kanpo geratu ziran Jesus Mari Mujika (21:23); Ugaitz Mugertza (21:48); Aitzol Atutxa (22:02); Ruben Saralegi (25:05) eta Luis Txapartegi (27:07).

Finala hilaren 27an jokatuko da Gasteizen.

**Bizkaiko Bikote Aizkolari Txapelketea**

Basaurin hilaren 12an jokatutako Bizkaiko Bikote Aizkolari Txapelketan ostera Aitzol Atutxak eta Unai Aldapek txapela jantzi eben.

## BOLA JOKOA

## Ipiñaburu-Undurragarentzat Kofradien arteko Bola Txapelketea

**Jon Urutxurtu**

Ipiñaburu-Undurragak irabazi eban 2019ko Zeanuriko Kofradien arteko Bola Txapelketea. Alzustako bolalekuan jokatu zan taldekako txapelketa hau urri bigarrenaren 5ean, eta lehenengo tokia undurragaztarrak, eskuratu eben 15 txirilo botata; bigarren Alzustak sailkatu zan, 13 txirilogaz eta hirugarren Uribe, 12gaz.

Aurten arazoak izan dira taldeak osatzeko, egun horretan herrian zein heritik kanpo hainbat ekin-tza egon dira eta bolari askori ezinezkoa egin jakon Alzustako bolatokira hurreeratzea. Hori dala eta, hiru bolarik —oin arte laukoak izan dira— osatutako taldeak neurtu ebezan indarrak. Hirukote irabazlea honako bolari honeek osotu eben: Eusebio Larrazaba-

lek, Francis Goioagak eta Jurek Ziemkiewiczek. Eskuratu eben saria: 200 euro eta afaria Kiloterdi Txokoan izan zan, Ellauri hotelaren jatetxean. Esan behar da aurten undurragaztarraren urtea izan dala, bakarkako txapelketea be Eusebio Larrazabalek irabazi eban eta.

Aitagarria da Alzustako kofradiaz andrazko batek hartu ebal parte: Ainhoa Mendiak; eta Asier Ibarondo eta Beñat Mendiagaz batera bigarren sailkatu ziran.





## MENDI DUATLOIA

### Zeanuriko Mendi Duatloia hilaren 26an izango da

#### Erredakzioa

Urri lehenengoaren 1ean Igantzin, (Nafarroa), hasi eta zemendiaren 23an Adunan (Gipuzkoa) amaituko da Euskal Herriko Mendi Duatloi Zirkuitoa. Zeanuriko Joko Alai alkar-teak antolatutako proba be zirkuitu honen barruan dago.

Duatloia erreleboka egin ahal izango da: batek galapan eta besteak bizikletako zatia. Partaideak, 15:30ean urtengo dira plazatik. Galapan, Orue, Soloeta eta Arregitik igaro ostean barriro plazara bajatuko dira 4,4 kilometro egin ondoren. Han bizikletak hartu eta Soloetatik gora joango dira, gero Alzustatik plazara bueltetako 15 kilometro eginda. Azkenengo galapaldia, 2 kilometrokoa, herri ingurutik egingo dabe.

#### Ume eta gaztetxoaren proba

Goizean, 11:00etan, hiru eta hamasei urte artekoak egingo dabe duatloia. 16 urtetik gorako gazteak, helduak batera parte hartu ahal izango dabe, beti be, gurasoen baimenagaz.

Izena Kirolprobak webgunean emon daiteke probaren bezpera arte. Proba egunean bertan be emon daiteke izena herriko plazan.

## FUTBOLA

### Andrazkoen taldeak itzel hasi dabe ligea

#### Erredakzioa

Andrazkoen Arratia A taldeak sano ondo hasi dau ligea eta bost jardunaldiren ostean hirugarren postuan dago 12 puntugaz. Datorren partidua hilaren 20an, 12:00etan, jokatuko dau Arratiak etxetik kanpo San Ignacio liderraren kontra.

B taldeak be emaitza onak lortu ditu eta partidua bat bardindu eta beste hirurak irabazi ostean bigarren postuan dago 10 puntugaz. Datorren partidua hilaren 20an, 15:30ean, jokatuko dau etxetik kanpo Leioako Emakumeak Bren kontra.

Gizonezkoen Arratia A eta Bk eta LemoaHarrobik osteraz ez dabe ondo hasi ligea. Arratia Ak hiru partidua bardindu eta bat galdu ostean hamabosgarren postuan dago 3 puntugaz. Datorren partidua hilaren 19an, 16:00etan, jokatuko dau Urbietan Trapagaran Aren kontra. B taldeak osteraz 4 jardunaldiren ostean 4 puntu ditu eta hamaikagarren da sailkapenean. Datorren partidua hilaren 20an, 16:00etan, jokatuko dau etxetik kanpo Padura Bren kontra.

LemoaHarrobi taldeak 4 jardunaldiren ostean 4 puntu ditu eta hamaikagarren da sailkapenean. Datorren partidua hilaren 19an, 17:30ean, jokatuko dabe Arlonagusan Ezkurdi A taldearen kontra.

## PELOTEA

### Cimadevilla, Alday eta Zapiko finalerako sailkatu dira Dimako txapelketan

Urri bigarrenaren 11n, Dimeko Udagoineko V.

Txapelketako (4 ½) lehenengo finalurrekoa jokatuko zan.



#### Erredakzioa

Gizonezkoetan, Gazte mailan, Xabier Rekalde eta Ibai Cimadevilla neurtu ziran eta Nagusi mailan, Kimetz Zapiko, Mikel Beldarrainen kontra; andrazkoetan, absolutuan, Amaia Aldayk Arrate Bergara izan eban aurkari. Cimadevillak, Aldayk eta Zapikok lortu eban finalerako pasea.

Gazte mailakoak hasi ziran lehen finalurrekoagaz. Enok

Iglesias zaratamarrak ezin izan eban jokatuko eta bere ordeiz Ibai Cimadevilla igorreztarra sartu zan Xabier Rekalde dimoztarrari aurre egiteko. Partidu osoan zehar Rekalde aurretik joan arren, amaiera partean Cimadevillari opari batzuk egin eta igorreztarrak garai-pena lortuteko aprobetxau eban. Azken emaitza 22-18 izan zan, Cimadevillaren alde. Finala hilaren 25ean izango da.

Andrazkoen maila absolutuko partidua jokatuko zan gero. Amaia Alday dimoztarrak nagusitasuna erakutsi eban Tuteratik etorritako Arrate Bergararen aurrean. Andrazkoak be pelota gogorragaz jokatuko eban eta dimoztarrari mesede egiten deutsu horrek, peloteari emoten deutsu abiadura handia dalako. Aldayk 22-8 irabazi eban finalurrekoa.

Nagusi mailako partidua parte bi euki ebazala esan leike. Hasi-keran, Zapiko dimoztarrak 19-2 jarri zan aurretik, Mikel Beldarrain arteztarrari partiduan sartzean itxi barik. Gero osteraz, Zapiko la-saitu eta Beldarrain tantoak egiten hasi zan. Ha-ta guztiz be, ha-

sikerako abantailari esker, Zapiko 22ra heldu zan finalerako txartela lortuz, 22-15.

#### Herriko pelotearen jaiak

Txapelketaren aurretik, herriko umeak ibili ziran pelotan Dimako frontoian. Partiduen bitartean herriko jantza taldeak jantzak egin ebazan eta taberna be ipini zan.

Kirol arloari jagokonez, "argi geratu zan Dimako Pelota eskolea egiten dabilen behar ona. Izan be, gero eta ume gehiago dira pelotan parte hartzean dabenak eta honeen jokoa be hobera doala ikusten da" antolatzaileen arabera.

#### Bigarren finalurrekoak 18an

Urri bigarrenaren 18an, 19:00etan, jokatuko dira bigarren finalurrekoak. Gizonezkoetan, Gazte mailan, Munitibarko Xabi Beitia eta Orozkoko Joritz Arbizu neurtuko dira; Nagusi mailan, Arantzazuko Imanol Arrese, Usansoloko Ibon Larrinagaren kontra. Eta andrazkoetan, kategoria absolutuan, Gernikako Olatz Arrizabalagak, Gasteizko Leire Garai izango dau aurkari.

Norgehiagoka honeen aurretik, 17:30etik aurrera, Dimako klubeko umeak jokatuko ditue partidua.

# udagoieneko ostera

Uzta berriak osteraz Bizkaiko udagoiengan

<p><b>SONAKAY + IKER LAUROBA</b> BILBO BBK aretoa urriak 26 20:00 sarrera: 10/12 €</p>	<p><b>ANNE ETCHEGOYEN &amp; LES NOUVELLES VOIX BASQUES</b> BERRIZ Kultur etxea urriak 26 20:00 sarrera: 8/10 €</p>	<p><b>AGUR ETA DOLORE ANTZERKIA-SOLASALDIA</b> PLENTZIA Danontzat Gaztebidea azaroak 9 20:00 sarrera: 3 €</p>	<p><b>HUNTZA</b> GETXO Muxikebarri Antzokia Arrigunaga aretoa azaroak 15 22:00 sarrera: 8 €</p>	<p><b>OLATZ SALVADOR + XABI BANDINI</b> BILBO Kafe Antzokia azaroak 28 22:00 sarrera: 10/12 €</p>
--	--	---	---	---

ANTOLATZARLEA: BABESLEA: LAGUNTZARLEAK:



## URTEURRENA

# Andra Mariko sutea (1919) gogoratuko dau Zeanurik urri bigarrenaren mendurrena ospatuz

Hamaika tirabira eta ailego eragin zituan parrokiaren konponketeak.

## Jon Urutxurtu

Joan dan apirilaren 15ean Paris albiste iturri izan zan Notre Dame katedralean izandako suteagaitik. Albisteak paristarrek eta arte munda astindu ebazan. Beste maila baten izan bazan be, antzeko zozter gertatu zan Zeanurin 1919ko urri bigarrenaren 28an, Andra Mari parrokiaren barrukaldea sute batek kiskaldu ebanean. Gertaera harek zeanuriztarrek astindu ebazan, eta aldi berean, dilema bat eragin eban herrian: parrokia zaharbarritu ala plaza inguruan eleiza barria eregi? Dilema horrek lehenagotik etozan hamaika haserre eta ailego berbitzu zituan herrian.

Gertaera haren 100. urtea beteten dala eta, egitarau berezi bat prestatu da Zeanurin, helburu nagusi biren inguruan: alde batetik oin dala gizaldi bat jazo zan sutearen gorabeherak gogoratzea eta ezetuten emotea; eta bestetik, antolatzen diran ekintzez gozatzeko aukerea emotea zeanuriztarrei adiskidetasun giro baten erdian, oin dala 100 urte emon zan tirabira eta ailego giroa alde batera itxiz. Bestalde, gura dabenez guztiak, zeanuriztar zein beste herri batzuetako bisitariak konbitea luzatzen jakie antolatu dan egitarauan parte hartzera.

## Eleizondoko gune monumental

Zeanuriko Andra Mari parrokia Eleizondoko auzoan kokatuta dago, eta Piedadako ermiteagaz eta Nestor Basterretxearen Kurutzegaz batera gune monumental interesgarria osatzen dau.

Parrokia gaur egun guztiz zaharbarrituta dago eta bere barruan Bizkaiko erretaularik interesgarriena dago; baina Andra Mari eleizeak hainbat gorabehera bizi izan ditu bere historian zehar; batez be oinarrien finkapen arazoengaitik, baten baino gehiagotan zarratu egin behar izan da: holan, Lorenzo Francisco de Muñoz arkitektoak 1865ean egin eban txostenean esaten danez, "eleizeak arazo larriak" zituan eta ondorioz gotzainak atek itxia agindu eban. Ointsuago, 1994ko maiatzean barriro itxi behar izan zan eta zaharbarritze lan sakanak egin ostean, 2000. urteko abuztuaren 15ean zabaldu zituan atek.

## Antxinatik etorren eztabaidea

Eleiza honen historia luzean, gaur egun oso ezaguna ez dan beste gertaera bat 1919ko urri bigar-

naren 28an jazo zan sutearena da. Barrukaldea erre egin zan eta horren ondorioz dilema bat sortu zan: parrokia konpondu edo plaza inguruan eleiza barria eregi. Dilema horrek antxinatik —gitxienez 1866tik— etozen eztabaidak eta liskarrak berbitzu zituan herritarren artean: alde batetik, plazatarrek edo *matxinoak* eleizea plazan eregitea gura izan eban; bestalde, baserriarrek edo *jepoak* eleizea zaharbarritzearen alde azaldu ziran. 1921ean plazan eregiko zan eleiza barriaren aurreproiektu bat be diseinatu eban Inazio Rotaetxe ingeniari ospetsuak, baina azkenik, bigarren aukerea izan zan aurrera atera zana: Eleizondoko Andra Mari zaharbarritzearena.

Gertaera hori gogoratzeke eta bide batez, Eleizondoko gune monumentalala balioesteko eta ezagutzera emoteke, egitarau berezi bat antolatu da. Egitarau horretan azpimarragarriak dira, urri bigarrenaren 26rako, zapatarako, antolatu dan Kandelen gaua ekitaldia —Ondarearen Europako Jardunaldien ekintza bat da— eta hurrengo egunean ospatuko dan meza nagusia. Bertan Joseba Segura Bilboko gotzain laguntzaileak parte hartuko dau.

## Eleizeari buruz 1919an idatzitako bertsoak

Andra Mari parrokiaren barrukaldea kiskaldu eban suteak eztabaida latzak agertu arazo ebazan zeanuriztarren artean: eleiza barri bat egin ala zaharra barritatu? Eztabaida horren inguruan bertsoak be idatzi ziran. Bertso horreek Eulogio Gorostiagak *Sociedad de Estudios Vascosen Laboratorio de Etnologia y Eusko-Folkloreko* 1925eko alean bildu zituan. Hona hemen bertso horreetako batzuk:

Atxine ibili zirean  
dirue batzean  
konpondu behar zala  
uda maiatzean.  
Bueltak eman dituzte  
bien bitartean  
elixa hori daukugu  
estadu txarrean.

Gero pentsatu dute  
eitia barria  
baldin konforme balitz  
Zeanuriko herria.  
Berrogeita hamar metro  
luzia naurria  
haraxe bajetako  
Birijina Maria.

Atxakie franku

badago hoiien artean  
plazan on gure daure  
guztiak nahastean.  
Foltsan dirue balauke  
bien bitartean  
pozik ongo litzatekez  
barrie ein artean.

Orazinoko etxeak  
atxinako legean  
plazatikan aparte  
egiten zirean.  
Orain egin gura dabez  
plaza bazterrean  
konpormisioa franku  
dagoen aldean.

## Asteburu bitan garatuko dan egitaraua

Andra Mari parrokiaren suteari buruzko egitaraua asteburu bitan garatuko da. Holan, urri bigarrenaren 19rako, zapatarako, ibilbide gidatua antolatu da "Eleizondoko gune monumentalala" izenburupean. Hitzordua Eleizondoko bertan izango da, goizeko 10:00etan. Ibilbide honetan, Piedadako ermiteari, Nestor Basterretxeak eregitako kurutzeari eta Andra Mari parrokiari buruzko gorabeherak azalduko dira; aditasun berezia jarriko da parrokiak gordetzen dauan erretaulan, Bizkaiko aberatsenatarikoa da eta. Kanpantorrera igoteko aukerea be izango da.

Hurrengo astegoienean, hilaren 25ean, 26an eta 27an, barikuan, zapatuan eta domekan jarraipena emongo jako egitarauari. Barikuan *Sute baten historia bizia* izenburua daraman berbaldea emongo dau Ander Manterolak Kultur Etxean, arrastiko 19:00etatik aurrera.

Zapatarako prestatu da egitarauaren ekitaldi nagusia: Kandelen gaua. Ekitaldi honeguz oin dala 100 urte gertatu zan sutea gogoratuko da



Iñaki Pérezek diseinutako kartela.

eta iluntzeko 20:00etatik aurrera plazatik Eleizondora oinezko bidea egingo da txistulariak aurretik doazela argi publikoa amatauta, parte-hartzaile guztiak banatuko jakiezan kandelak isiotuta eskuetan eroanez. Antolatzaileak ekitaldi honetan parte hartzekeo deia egiten deutsee zeanuriztarrei zein inguruko herrie-



Iñaki Lejarza Andra Mariko azken kanpai-jolea.

## Iñaki Lejarza, Andra Mariko azken kanpai-jolea

Urri bigarrenaren 26an, iluntzeko 20:00etan Kandelen gaua ekintzeari hasikerea emoteke ordua heldu dala adierazoko dabe kanpai-hotsak. Eta kanpaiak martxan ipiniko dituana 86 urteko Iñaki Lejarza (1933-5-20) izango da, Andra Mari parrokiako azken eskuzko kanpai-jolea. Eskuz eraginda ipinten ebazan dilin-dalanean kanpaiak Iñakik, baina oingoan botoi bat sakatuta jarriko ditu martxan.

Bere aita Andres Lejarza izan zan familiako lehen kanpai-jolea eta Iñakik umetatik aitari laguntzen eutsan zeregin horretan. Aita hil zanean berak hartu eban lekukoa eta holan jarraitu eban 1994an, arazoak zirala eta Andra Mari parrokia zaharbarritze beharrak egiteko zarratu zan arte.

Iñakiren arabera, "egunero-egunero hiru joaldi egiten genduzan: goizaldeko 06:30ean, arimena; 12:00etan, angelusa eta ilunkera, abemariak. Hiru joaldi horreek kanpantorrera igon barik jotzen genduzan, kanpantoretik eleizako sarrerara etorren sokea tiratuz. Baina mezatara deitzekeo, kanpantorrera igoten nintzan eta eskuz eragiten nebazan kanpaiak. Kanpantorreko hiru kanpaiak —handi bat eta txiki bi— aldi berean jo behar baziran, aitari nik eta Jose Antonio anaiak laguntzen geuntsan. Gero, ni kargu egin nintzanean, nire seme biak, Pedrok eta Jose Antoniok, laguntzen eusten. Eguneroko hiru joaldiak kanpantorrera igo barik jotzen ziranez, nire andrea, Benedikta Ibarando (1933-6-29) be sarritan arduratzen zan zeregin horretaz".

Baina eguneroko hiru joaldiez gainera, beste batzuk be baegozan eta badagoz, bakotxa bere berezitasunagaz: "adibidez hil-kanpaiak baten bat hiltzen zanean jotzen ziran: gizonezkoa bazan hasikera hiru joaldi egiten ziran; andrazkoa bazan, bi. Sute bat baegoan su-kanpaiak jotzen ziran; ekaitz gogorren bat etorrela ikusten bazan harri-kanpaiak...".

Iñakik gogokoen daukazan joaldiak jaietakoak eta Gabonetakoak dira, "joaldi luzeak, baina aldi berean poztasuna adierazoten dabena. Gainera, hemen Zeanurin, oindino be zapatuetan eta jai-bezperetan arrastiko hiruretan beti jotzen dira kanpaiak".

Gaur egun Iñaki jubilauta dago, Andra Mari parrokiaren ondoko etxean bizi da eta egunero begiratzen dau kanpantorrera. Hilaren 26an, ez ditu igo beharko hamaikatz aldiz igo zituan kanpantorreko ehundik gora eskailerak; botoi bat sakatuta jarriko ditu martxan hiru kanpaiak, eta holan oin dala 100 urte gertatu zan sutea gogoratzekeo plazatik Eleizondora kandelakaz egingo dan ibilaldiari urteteko abisua emongo deutso.

Hurrengo egunean, Joseba Segura Bilboko gotzain buru izango dauan meza nagusira deitzekeo, Iñakiren semeak, Pedro eta Jose Antonio, kanpantorrera igoko dira kanpaiak eskuz eragiteko.

tako jenteari. Eleizondora heltzean kanpantorrean egongo diran Iker eta Aitziber txalapartarien soinuk harrerea egingo deutsee ibiltariak. Ondoren, eleiza barruan musika emonaldia entzutekeo aukerea izango da: Gontzal Mendibilek, Olatz eta Estik, Zeanuriko Abesbatzak... parte hartuko dabe. Herriko bertso-lariak 1919an idatzi ziran bertsoak abestuko dabez: bertan azaltzen da sasoi haretan zeanuriztarren artean bizi izan zan giro tirabiratsua.

Urri bigarrenaren 27an, domekan, goizeko 11:30eko meza nagusiagaz emongo jako amaierera egitarauari.



## JANTZEA

# Hika Teatroak Igorren estrenauko dau *Zaparrada* jantza ikuskizuna

Urri bigarrenaren 26an, iluntzeko 20:30ean, Hika Teatroa konpainiak, *Zaparrada* izeneko jantza ikuskizuna estrenauko dau Igorreko Kultur Etxean.



### Erredakzioa

Noemi Vianak, Myriam Perez Cabonek eta Agurtzane Intxaurragak jantzatuko ditue Igor Calongeren koreografiak. Intxaurraga, jantzariak gainera, proiektuaren zuzendaria eta, Igor Calongegaz batera, obra honetako espazio diseinatzailea be bada.

Jantzaren bitartez, ito egiten dauan zaparrada baten harrapatuta egotearen sentimentua transmitidu gura dabe Hika konpainiak. "Goitik beheraka dator eta bertigoa da. Lur lehorraren sakotasuneraino talka eginaz, gogor talka eginaz, lurra irenstera datorren harri tanta birrindua da.

Hamaika zatitan hautsia, ibilbide geldiezinan, zuzian, ero mobimentuan, haizea bera be baztertuz, zerutik txirikordatuz dator. Bidea zanpatuz eta zapalduz, arnasa daukan guztia itoz dator. Astun indarrez, gupida barik, zaurigarri, lurra joz dator. Lurra arrakalatu, akituz eta itoz dator. Goitik behera geratu eta gelditzen danean be, alborik albo bidea egiten jarraituko dau, isilago baina ozen, bizitzaren mobimentu organikoaren oihartzun bihurtuz. Mobimentu bildurgarria bezain beharrezkoa izan dala gogora arazoz. Gertaera eta paisaje barriak sortu arazoko dituan melodia dramatikoak" dinoe sinopsian.

## ERAKUSKETEAK

# Ines Medinaren ikasleen erakusketea

### Erredakzioa

Ines Medinaren mintegian parte hartutako hamabi artista plastikok, euren artelanak erakutsiko dabez *Prozesu sortzaile genuinoaren garapena arte plastikoaren bidez* izeneko erakusketan. Erakusketea urri bigarrenaren 26an inaugurauko da, eta zemendiaren 29ra arte egongo da ikusgai Igorreko Kultur Etxeko Erakusketa Aretoan.

Ana Rosa Arroyo, Arantza Pineda, Edorta Bilbao, Feli Agirre, Inma Uzkudun, Iratxe Etxebarria, Juan Maria Mateos, Loli Undagoitia, Marian Daubagna, Marisol Calzada, Pedro Pineda eta Tere Uribe-Etxeberriaren lanak batzean dira erakusketan. Erakusketearen komisarioa, Ines Medina mintegiko irakaslea da.

Ines Medinak hamar urte daroaz mintegi honeek emoten eta ikasleen zortzigarren erakusketea da. Erakusketa guzti honeen ezaugarri dira "aniztasuna, bizitasuna, benetakotasuna, eta erakutsitako lanen kalidade plastiko eta artistikoa".

### Inaugurazino ekitaldia

Hilaren 26an, arrastiko 18:00etan, inaugurauko dabe erakusketea musika eta jantza ekitaldi batez. Alratze jantza taldeagaz batera, Zuriñe Benaventek jantza eta abotsa ipiniko dau eta Ignacio Monterrubiok pianoa eta elektronika.



Ana Rosa Arroyok diseinutako katalogoaren azala.

## JANTZEA

# Arantzarte, 45 urte euskal jantzak plazara ateraten

### Erredakzioa

Oindino Franco bizirik zala sortu zan Arantzarte Dantza Taldea eta 45 urte beranduago jarraituten dau belauldi barriak euskal jantzak erakusten eta Arratiako eta munduko plaza eta eszenalekuetan jantzan egiten. Urri bigarrenaren 26an urteurren jaia egingo dabe Igorren eta egun osoko egitaraua presatatu dabe horretarako.

Jaia goizeko 11:00etan hasiko da Zazparraken eskutik umeentzako jolasakaz. Kultur Etxeko plazan izango dira jolasok eguraldia ona bada eta eskoletako aterpean, euria egin ezker. Ondoren, 13:00etan, triki poteoa egongo da eta 15:00etan, bazkaria Kiñu Gaztetxean. Bazkalostea, bertsoak eta jantzak girotuko dabe. Jaia, Kittuk animatutako kantu poteoagaz amaituko da. Hau, 19:30ean abiatuko da Gaztetxetik.



## DUNBA

# Lanbide Heziketako V. Plana Zulaibar Lanbide Ikastegian

### Zulaibar Lanbide Ikastegia

"Etorkizun hurbilaren ezinbesteko bereizgarria izango da baliosorrera iraunkorra, hazkunderako, enplegu kualifikaturako eta ongizate sozialerako bide izango dalako. Holan, etenbako aldaketak egin beharko deutsegu aurre, eta esparru askotan. Aldaketok beste gizarte eredu bat ekarriko dabe eurekaz; egiturazko aldaketa sakonak izango dira, eta oreka barri bat, konplejutasun handia eta seguruenik ziurbakotasun larregi eragingo dabe".

Arratiako Zulaibar Lanbide Ikas-

tegia ziurbakotasun honeri aurre egiteko TKnikan (LHri aplikatutako ikerketa eta barrikuntza zentroa) hainbat proiektutan sartuta gagoz gure ikasle eta inguruko enpresari ziurbakotasun honeri ahal danik eta erosoan aurre egiten lagunduteko.

### 1. Metodologia aldaketea

Badaroaguz 3-4 urte ETHAZI ereduagaz. Metodologia honeguz ikasketa testuinguru barriak sortzean doguz, gaitasun tekniko, zeharkako gaitasun, kultura ekin-tzailearen sustapen eta pentsamentu sortzailearen garapenean



oinarrituta.

### 2. Barrikuntza proiektuak Proiektua\_SENSORIZAZIOA

Proiektuaren helburua, ebaketa erraminta berezien fabrikaziorako prozesu bat sensorizatu eta monitorizatzea da. Proiektu hau, Zulaibar Arratiako Lanbide Ikastegiak, Mondragon Goi Eskola Politeknikoagaz alkarlanean erongo dau aurrera.

### Proiektua\_3D-ko inprimaketa industria 4.0-an

Proiektuaren helburua, industria

4.0-an 3D inprimaketak izan daiekian aukerak ikertzea da. Plastikozko injezinoan eta beroko estanzinoan erabilten diran trokel eta moldeetan izaten diran hozketa sistemen optimizazioan oinarrituko da proiektua. Proiektu hau, 5 Lanbide Heziketa zentro eta enpresa biren kolaborazio bitartez egingo da.

### TKgunea

Lanbide Heziketako ikastetxeok osotzen dogun sareak, gure azpiegitura eta metatu dogun jakintza, enpresearen eskura ipinten dogu, alkarregaz proiektuak garatzeko.

### 3. Ekintzailetasuna

Urratsbat adituak. Urratsbat, enpresak sortzean laguntzeko programea da. Aholkularitza integraleko zerbitzua eskaintzen dau enpresak abian ipinteko. Ikastetxean behar dan moduan ekipau-

tako bulego bat erabilteko aukera be emoten dau enpresearen funtzionamentuaren lehen hila-beteetan. Baita, beste instalazio batzuk be: produktuaren prototipoak egiteko azterketa fasean ikastetxeo tailerrak, berbarako.

### 4. Internazionalizazioa

Nazinoartekotzearen kultura sortzeari begira Erasmus+ eta Global Training bekek eskaintzen doguz. Baita irakasleentzat mobikortasun programak be.





## AGENDEA

### URRI BIGARRENAK 16 AREATZA

Biaje koadernoak egiteko hasikerako mailako tailerra Martin Murogaz Areatzan. Artista hasibarriztako ikastaro hau urri bigarrenaren 20an izango da. Emon izena 617 332 691 telefonoan.

Hilaren 19an izango dan Euskal Jaiko bazkarirako txartelak salgai Areatzako tabernetan. 15 euro.

Zemendiaren 16ko Hernaniko Basqueland Brewing garagardaotegira urtekerarako izena emon daiteke hilaren 27ra arte 637 757 335 telefonoan WhatsApp bat bialduta.

18:00etatik 20:00etara, Uparan Jubilatuta eta Pentsiodunen Elkarteak antolatutako Bermeora txangora (hilak 24) joateko izena emotea. Jubiladuen lokalean.

#### ARRATIA

Hilaren 31ra arte, AUMk antolatutako Enpresa Ideien Lehiaketan proiektuak aurkezteko epea.

#### BEDIA

16:30etik 19:30era, hilaren 25era arte, San Martin eguneko (zemendiak 10) babajenerako izena emoteko epea liburutegian.

#### IGORRE

Hilaren 20ra arte, Leo Simoes-en argazki erakusketea *Abentura bestearekin* Kultur Etxean.

Udal liburutegiak, umeai, maileguan hartutako liburu eta DVDak eroateko motxila bat itxiko deutse. Haur liburutegi ibiltaria izeneko kanpaina honen helburua umeen artean irakurzaletasuna bultzatzea da. Motxilea eroateko bazkide izan behar da eta konpromisoa hartu behar da liburuak eta motxilea epe barruan bueltetako.

#### LEMOA

Hilaren 18ra arte, izena emon daiteke Jubiladuen Eguneko bazkarirako udaltxean.

Hilaren 31ra arte, Lemoako VIII. Argazki Lehiaketara argazkiak bialtzeko epea, [kultura@lemoa.net](mailto:kultura@lemoa.net) helbidera.

### URRI BIGARRENAK 17 AREATZA

18:00etatik 20:00etara, Uparan Jubilatuta eta Pentsiodunen Elkarteak antolatutako Bermeora txangora (hilak 24) joateko izena emoteko azken eguna. Jubiladuen lokalean.

19:30ean, *Kulturearen transmisioa kantua bidez* kantu tailerra Itsaso Arrietaren eskutik Udal Aretoan. Euskal Jaiaren programearen barruan.

#### ZEANURI

18:30ean, Eguzkiolak antolatuta Silbia Adaliaren berbaldi-tailerra, *Gorputza eta emozioak lantzea diafreoaren bidez*. Ostean, ikastaroa egiteko aukerea

zabalduko da.

#### ZEBERIO

Gure Indarra Jubilatuen eta Pentsionisten Elkarteak antolatuta, Oiartzun eta Donostiara txangoa. 09:00etan, Ermitabarrin, 09:05ean, plazan, 09:10ean, Arkulanda eta Santa Kruzen.

### URRI BIGARRENAK 18 AREATZA

11:30ean, Euskal Jaiaren programearen barruan, Txistuman musikariaren eskutik, Euskal Herriko eta munduko instrumentu tradizionalai buruzko kontzertua Udal Aretoan.

#### DIMA

Dimeko Udagoieneko V. Txapelketako (4 1/2) finalurrekoak. 17:30ean, klubeko umeen partiduak; 19:00etan, finalurrekoak. Xabi Beitia vs Joritx Arbaiza; Olatz Arrizabalaga vs Leire Garai eta Imanol Arrese vs Ibon Larrinaga.

18:00etatik 19:00etara, barikuetan, euskal jantza ikastaroa, Dantzari finak taldeagaz.

18:30ean, Zamakola Hirugarren Adineko Alkarteak antolatuta, Egoitz Zabalaen berbaldia *Aurretiazko borondateen dokumentua* Jubiladuen lokalean.

#### LEMOA

19:30ean, Arratia Kantuzek, kantu bira Batzokitik hasita.

#### ZEANURI

18:30ean, Eguzkiolak antolatuta, *Abizenen jatorri eta garapenari buruz* genealogiaren inguruko berbaldi praktikoa Jose Felix

Zuazuaren eskutik.



### URRI BIGARRENAK 19 AREATZA

Euskal Jaia. 12:00etan, kalejirea Areatzako txistulariakaz, Eusko Lorak taldeko joaldunak, Bizkaiko Gaiteroak, Areatza eta Ondalaneko erraldoiak eta Arratiako musikari handiak txobongiloak; 13:00etan, *Txakunaren bidean* txalaparta saioa Ugarte anaiakaz; 13:30ean, Tio Teronen Semeak *FreshCool* musika eta jantza ikuskizunagaz; 15:00etan, bazkaria; 17:00etan, Ein GOGaz poteoa; 19:15ean, erromeria Bizkaiko Gaiteroakaz; 20:00etan, Larrain jantzea; 20:30ean, berakatz zopea eta txahal erre; 22:00etan, erromeria Tximeletagaz.

Ezti dastaketea Parkean. Areatzako erlezainak diran Egileor familiaren laguntzeagaz. Izena emon [gorbeia.park.naturala@bizkaia.eus](mailto:gorbeia.park.naturala@bizkaia.eus) helbidean edo 94 673 92 79 telefonoan.

#### BEDIA

09:30etik 14:30era, familia urtekerea

perrebitkotan. Plazatik urtenda.

#### DIMA

09:00etan, Andraizea andra taldeak antolatuta, urtekerea itsasadarreko ezkeraldera: Pobaleko burdinola, Zugaztieta eta Bizkaia zubia. Plazan. Izena 635 737 879 (Aiora) eta 675 007 643 (Naiara) telefonoetan emon.

#### IGORRE

22:00etan, zinea *Agur Etxebeste!* Lasarte Aretoan.

#### ZEANURI

10:00etan, Eleizondoko gune monumentala ibilbide gidatua Eleizondotik. Ondarearen Europako Jardunaldiak.

### URRI BIGARRENAK 20 DIMA

11:30etik aurrera, Igitie azokea eta Ongi Etorri Errefuxiatuak plataformeak antolatutako bigarren eskuko liburu azokea eta pintxoak salgai frontoi txikian; 13:00etan, OEEren ekitaldia eta Kantu Bat Gara taldea; 13:30ean, Joseba Sarrionandiaren olerkia hizkuntza desbardinetan irakurriko dabe Arratian dagozan errefujiaduak; ondoren, Kantu Bat Gara taldeagaz kantau.

#### IGORRE

17:00etan, zinea *Elkano eta Magallanes*; 19:30ean, *Agur Etxebeste!* Lasarte Aretoan.

### URRI BIGARRENAK 22 ZEBERIO

18:00etan, Gure Indarra Jubilatuta eta Pentsionisten Elkarteak antolatuta, *Nik jolasa ipiniko dot, zuk mahaia* tailerra udaltxeko 2. solairuko gelan.

### URRI BIGARRENAK 23 IGORRE

19:00etan, Angel Larrea historialariaren *Aisia eta somena ondare* berbaldia Kultur Etxean. Ondarearen Europako Jardunaldiak.

### URRI BIGARRENAK 24 AREATZA

09:00etan, Uparan Jubilatuta eta Pentsiodunen Elkarteak antolatuta, Bermeora txangoa.

#### BEDIA

17:30ean, 5 urtetik gorakoentzat *Non dago Txirlo?* ipuin kontaketa interaktiboa eta tailerra. Liburutegian.

#### IGORRE

17:30ean, Monica Ramosen berbaldia, *Envejecer siendo mujer. Vivienda y convivencia* Kultur Etxean.

### URRI BIGARRENAK 25 DIMA

Dimeko Udagoieneko V. Pelota Txapelketako (4 1/2) finalak.

#### IGORRE

18:00etan, Edadekoen andren topaketea Kultur Etxean.

#### LEMOA

Karabie Gaztearen 20. urteurrena. 18:30ean, txupina; 19:00etan, herriko triki poteoa; 21:30ean, afaria eta ekitaldia. Ondoren, jantzaldia.

#### ZEANURI

19:00etan, *Sute baten historia bizia* Ander Manterolaren berbaldia Kultur Etxean. Ondarearen Europako Jardunaldiak.

#### ZEBERIO

18:00etan, *NireApp* mobikorretarako aplikazioak sortzeako tailerra Gaztelekuan.

### URRI BIGARRENAK 26 BEDIA

Udaleko Bardintasun arloak eratuta, astegoen urtekerea Zugarramurdira 18 urtetik gorako andrentzat.

#### IGORRE

Arantzarte Dantza Taldearen 45. urteurren jaia. 11:00etan, umeentzako jolasak Zazparacken eskutik Kultur Etxeko plazan; 13:00etan, triki

poteoa; 15:00etan, bazkaria Kiñu Gaztearen; bazkalostean, bertsok, jantzak...; 19:30ean, kantu poteoa Kittuk girotuta Gazteetik hasita.

18:00etan, *Prozesu sortzaile genuinoaren garapena arte plastikoen bidez* erakusketearen inaugurazioa. Altraste jantza taldea eta Zuriñe Benaventeren jantzak eta Ignacio Monterrubioaren musikeagaz. Kultur Etxean. Erakusketea zemendiaren 29ra arte.

20:30ean, Hika Teatroaren *Zaparrada* jantza ikuskizunaren estreinaldia Lasarte Aretoan.

#### LEMOA

Jubiladuen Eguna. 12:00etan, mezea eta Durundibarri Dantza Taldea; 14:00etan, bazkaria kiroldegian.

Karabie Gaztearen 20. urteurrena. 18:30ean, Erruda poteoa, DJ Reimy Bike Sound-egaz; 21:00etan, kontzertuak: Zeinke, Moonshine Wagon, The Riff Truckers, Bad Sound, Gorka Suaia eta Mad Muasel.

#### ZEANURI

Zeanuriko V. Mendi Duatloia. 11:00etan, hiru eta hamasei urte arteko umeak eta gazteak; 15:30ean, Mendi Duatloia (16 urtetik gorako gazteak, helduak batera parte hartu ahal izango dabe, beti be, gurasoen baimenagaz).

20:00etan, Andra Mari parrokiak eta Udalak antolatuta, Kandelen gaua, ibilbide musikatua plazatik urtenda. Ondoren, musika emonaldia eleizan: Gontzal Mendibil, Olatz eta Esti, Zeanuriko Abesbatza...

### URRI BIGARRENAK 27 BEDIA

17:00etan, *Sormening* Onditiz Mendizabalegaz Gazte Txokoan. 13-22 urte bitartekoentzat. Beldur Barik Lehiaketea.

#### IGORRE

22:00etan, zinea *Infierno bajo el agua* Lasarte Aretoan.

#### LEMOA

Arratia-Otxandio-Zeberio-Ubide XX. Mendizale Eguna. PR-BI 56 Lemoatxa 1937. 10:00etan, urtekerea eskoletatik. Izen emotea hilaren 23ra arte, 5 euro (umeak doban). Arginatx Arantzazu 626 144 075; Lamino Areatza 646 355 550; Moxogan Igorre 688 853 003; Ganzabal Lemoa 675 701 359; Mirugain Otxandio 652 760 030; Amexier Ubide 696 744 988; Joko Alai Zeanuri 634 430 543 eta Austarri Zeberio 656 415 597.

Karabie Gaztearen 20. urteurrena. 18:00etan, desmontajea eta garbiketea; 20:00etan, merienda.

### URRI BIGARRENAK 28 ARTEA

18:00etan, *Autodefensa feminista* tailerra Mataderoan. Mataderoa defendatuta! Ekimena.

#### IGORRE

17:00etan, zinea *Aladdin*; 19:30ean, *Infierno bajo el agua*. Lasarte Aretoan.

### URRI BIGARRENAK 29 ZEBERIO

18:00etan, Gure Indarra Jubilatuta eta Pentsionisten Elkarteak antolatuta, *Nik jolasa ipiniko dot, zuk mahaia* tailerra udaltxeko 2. solairuko gelan.

### URRI BIGARRENAK 30 LEMOA

19:00etan, Jai Batzordearen batzarra, jaien balorazioa Elizondo Kulturunean.

### URRI BIGARRENAK 31 BEDIA

18:00etan, Arimen gaua liburutegian.

#### ZEANURI

18:00etatik aurrera, Eguzkiolak antolatuta, Arimen gaua plaza inguruan. Arimen bila jolasak, desfilea, sorgin jantzea, kobazuloan sartu-urtena, jatekoa, musikea eta jantzaldia eta bildur gaua.



## Agur Etxebeste! pelikulea Lasarte Aretoan

Hilaren 19an, 22:00etan, eta 20an, 19:30ean, Lasarte Aretoan, *Agur Etxebeste!* euskerazko umorezko pelikulea ikusteko aukerea egongo da. Asier Altuna eta Telmo Esnalak komedia hau, 14 urte lehenago egindako *Aupa Etxebeste!*ren bigarren zatia da. *Agur Etxebeste!* komedian, zuzendariak eta aktore protagonistak lehenengo zatiko berberak dira; Paco Sagarzazu, Ramon Agirre, Elena Irueta eta Iban Garate, hain zuzen be.

*Agur Etxebeste!* bere prekualea amaitu zan puntutik abiatzen da. Baina Patrizio Etxebestek, osasun arazoak dirala eta, alkatetza itxi beharra dauka. Aginte makilea mantentzen guran, bere andrea Maria Luisa izentauko dau alkate. Maria Luisak bere lana serio hartuko dau eta goitik behera aldatuko dau udalaren funtzionamentua.



# AKI MI KO

Zorrozki



## IRAGARKI LABURRAK

### SALDU

#### TEILAK SALGAI

Baserri konponketa baten osteko kurbadun teila erdibarriak saltzean dira. Prezioa 0,70 euro negoziagarriak. Telefonoa: 630 363 971.

### DANERIK

#### LONJEA ALOKATZEN DA

Lonjea alokairuan Areatzan. 35 m<sup>2</sup> eta komuna. Egokia negozioa edo bulegoa jartzeko. Telefonoa 634 400 920.

### IRAKASLE BILA

2019-2020 ikasturterako, 4. DBHko Fisika eta Matematikako klase partikularrak emateko persona bat behar da. Telefonoa: 658 726 587.

### LANGILE BILA

Axular Kultur Elkartearen astegoienetarako behargin euskaldun bila gabiz. Interesdunak 94 673 70 92 telefonora deitu.

### ETXEEN GARBIKUZIA

Etxeak garbitzeko nonor behar badozu, ez eizu dudarik egin. Deitu 632 426 687

telefonora.

### PISUA ALOKATZEN DA

Zeanurin pisua alokagai. 3 logela, komuna, egongela, sukaldea eta balkoia. Interesdunak deitu zenbaki honetara: 628 041 526.

### LONJEA ALOKAIKIRUAN HARTZEAN DOT

Lemoan 80 eta 150 metro bitarteko lonjea behar da alokairuan hartzeako. Deitu 617 046 429 telefonora.

### KOMERTZIALA BEHAR DA

Komertzial lanetarako persona bat behar da. Ez da esperientziarik behar. Interesdunak bialdu curriculum *info@behingo.es* helbidera.

**Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat. [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com) era. Mezuak doban dira.**

## Begitu-lagunen txokoa

### Zenbaki honetako saridunak:

**1** Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera *Agur Etxebeste!* filma ikusteko.

Idoia Zuloaga (Areatza)  
Pedro Mari Legarreta (Igorre)



**2** Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera *Zaparrada jantza* ikuskizunerako.

Idoia Legarreta (Igorre)  
Mireia Batiz (Igorre)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. BEGITUK 17 urte eta ehundaka lagun.

94 631 73 14 | [www.begitu.org](http://www.begitu.org) | [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com)

umean medu  
**sem**  
e-16  
Agirre Lehendakaria, 31 • 48140 IGORRE  
Tfnoa: 94 631 92 96 • [semedu@hotmail.com](mailto:semedu@hotmail.com)

*Kepa Intxausti*  
TAXI ZERRITZUA  
609421222  
IGORRE

*Orrie*  
FOTOKOPIAK - PAPERDENDA  
L. Agirre, 2  
48140 Igorre (Bizkaia) Tfnoa: 94 673 64 25

**begitu**  
anillo uhala orbera

Igorren  
**ARKITEKTOA**  
Aitzol Aurrekoetxea Pujana  
Lehendakari Agirre 23, behea  
[aitzol@coavn.org](mailto:aitzol@coavn.org) - 675 705 111

Recreativos Gubi S.L.  
Angel Larrea  
Zornotza Tfnoa 649 86 95 36

**KIRRU**  
ILEAPAINDEGIA  
ROSANA eta ROBER  
SABINO ARANA 38  
IGORRE  
Tlf. 94 631 92 00

Beer & Edariak s.l.  
HEINEKEN SOLARES  
Polig. Mendietza, s/n 48530 LEMOIA, Bizkaia  
Tel: 609 482 530 • 609 206 717

**ZUZENBIDE**  
ASEGURUAK: AUTOAK ETXEBIZITZAK  
AHOLKULARITZA: LAN ZUZENBIDEA ZERGAK KONTABILITATEA  
DENDAK ISTRIPUAK BIZITZA...  
Tlf. 94 673 71 41 - 94 673 70 55 - 94 612 11 96 - Faxa 94 612 11 96  
Sabino Arana 3. behea - Igorre (Bizkaia)

**BIXER**  
TABERNA  
Beko kalea, 2 - Telf. 94 631 73 65 - VILLARO

Jose Luis Corbacho  
**pintura lanak**  
Sabino Arana, 3. 3a  
Igorre 48140 Bizkaia  
94-673-70-87  
609-79-49-54

**AKESOLO, S.A.**  
GARRAIOAK, NEUMATIKOAK ETA ZERBITZUAK  
Gara, 29 Telefonoa: 94 673 60 14 IGORRE-BIZKAIA

*Pinturas Arantia*  
Javi Morato  
Tel. 628 443 992

NAIARA HORTZ KLINIKA  
Lehendakari Agirre, 19  
48140 Igorre  
94 631 52 26



**begitu**  
arratia ubide zeberio

**2019AN EGIN ZAITEZ BEGITU-LAGUN!  
URTEA AMAITU ARTE BEGITU-LAGUN EGITEAK SARIA DAUKA!**

Begitu aldizkariaren asmoa eten barik hobetzea da, beti be Arratia-Ubide-Zeberio inguruko euskerazko aldizkaria euki daigun. Baina horretarako baliabide ekonomikoak indartu behar doguz, Begitu bere buruaren jaube izan eta etorkizunari bermez eutsi ahal izateko.

Horretarako **2019an egin zaitez Begitu-lagun!** kanpaina abiatu gura dau Begitu aldizkaria argitaratzen dauan Zertu Kultur Elkarteak, eta helburua argia da:

Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekari euskalduna babesteko dozu?

**BAIETZ  
50 LAGUN  
BARRI EGIN!**

Hori egiteagaitik **Areatzako Bainuetxeko Aterpe** jatebixean bi lagunentzako itzelezko menua zozketatuko dogu hurrengo hamabostaldian Begitu-lagun barrien artean.



Oindino Begitu-laguna ez bazara, eta Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekaria babestu gura badozu, bete egizu beheko formularioa eta bialdu honako helbidera:

**Zertu Kultur Elkarte** Herriko plaza 24. 48142 Artea.



\*Gainera Begituren produktu honeek helduko jatzuz etxera doban.

Izen-abizenak: \_\_\_\_\_

Helbidea: \_\_\_\_\_

Telefonoa: \_\_\_\_\_ Helbide elektronikoa: \_\_\_\_\_

Kontu korrontearen zenbakia: ES \_\_\_\_\_

Aukeratu urteko kuotea:  35€  55€  75€

Edo e-mailez, bialdu datuok: [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com) helbidera.

UDAGOIENeko ESKAINTZAK 2019

**EGUNEAN-EGUNEAN  
ERRENDIMENTURIK  
ONENA**



Hemen gagoz:

**GARAJE FELIPE**

[www.garajefelipe.stihl-tienda.es](http://www.garajefelipe.stihl-tienda.es)

- 📍 Garbe, 2 - Igorre
- ☎ 946 736 339
- ✉ [garajefelipe@euskalnet.net](mailto:garajefelipe@euskalnet.net)
- 📍 Montorra auzoa, Behea 1º - Amorebieta
- ☎ 946 309 039
- ✉ [garajefelipe2@telefonica.net](mailto:garajefelipe2@telefonica.net)

Eskaintza baliozgarria 2019ko abenduaren 23ra arte